



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

**Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua**  
2016-2017 ikasturtea

**Gaztelaniatik euskararako poesia-itzulpena:**  
***Corramos libres ahora* poesia-bildumaren itzulpena eta bere analisisa**

**Egilea:** Ibai Sarasua Garcia

**Tutorea:** Elizabete Manterola Agirrezabalaga

Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Saila

## LABURPENA

Itzulgai orotan zailenatarikotzat jo izan dira poesiak sarri, beren ezaugarrien berezitasuna dela eta. Hala izanagatik, poesia ez da itzulezina, eta horren erakusgai da beste hainbat kulturatako poesiak gure hizkuntzan irakurri ahal izateko aukera. Lan honek itzulpen mota horri heltzen dio, eta gaztelaniatik euskararako poesia itzulpena du gai nagusi. Rosamaría Roffiel autore mexikar lesbianaren *Corramos libres ahora* poesia-liburu intimista itzultzea izan du helburu, eta, poesia-itzulpenaren inguruan adituek egindako hausnarketatik abiatuta, zenbait irizpide ezartzen ditu itzulpen-prozesua bidera dezaten. Itzultze hutsaz harago, itzulgaiaren ezaugarri nagusien analisia egiten du lan honek, eta baita itzultze-prozesuan sortutako arazo eta zailtasun aipagarrienen azterketa ere. Atal horien xedea da, alde batetik, itzulgai jakin horren itzulpen-jardunak ekarriko dituen zailtasunen aurreikuspena egitea, eta, bestetik, prozesu horretan topatutako oztopo handienak identifikatu eta sailkatzea, arazo guzti-guztiak banan-banan aztertzeke ezintasuna dela eta.

Horrela, bada, gaztelaniatik euskararako poesia-itzulpenak ekar ditzakeen erronken eta zailtasunen tratamenduaren adibide praktiko bat eskaintzen du lanak, azken horiek gainditzeko aurkitutako irtenbideen adibide zenbait aztertzen baitira ahal bezain xehetasun handienez. Bertako arazo eta adibideak gaztelaniatik euskararako poesia-itzulpen orotara zabaldu ez daitezkeen arren, poesia itzultzean sor daitezkeen arazoen ugaritasunaren eta aniztasunaren erakusgarri gisa balio du lan honek.

Era berean, itzulgaia eta itzulpena alboz albo aurkezten ditu, itzulpen-jardunean galdutako eta eraldatutako elementuak begi-bistan gera daitezkeen, eta ikusgai gera dadin itzultzaileak jatorrizko testuaren zentzu eta estetika xede-hizkuntzara zer nola ekarri dituen. Hain zuzen ere, itzultzailearen esku baitago gaztelaniazko jatorrizkoaren baliabide literarioek euskarazko xede-hizkuntzan izango duten isla, eta isla horren egokitasuna epaitzeko bide egokia ematen du alboz alboko konparaketa horrek.

Hortaz, lan honek modu analitikoan aztertzen ditu, alde batetik, *Corramos libres ahora* itzulgaia, eta bestetik, egileak egindako itzulpena; eta baita batetik besterako itzulpen-prozesua ere. Poesia-itzulpenaren adibide praktiko izateaz gain, beraz, poesia-itzulpenaren prozesua aztertzeke parada ere ematen du lan honek, itzultzaileak itzulgaia esku artean hartzen duenetik egindako itzulpenaren ahuluneak eta indarguneak aztertzen dituen arteko prozesua agertzen baita bertan.

## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA .....	1
2. POESIA-ITZULPENAREN INGURUKO HAUSNARKETA ZENBAIT .....	3
3. ITZULGAIAREN AZTERKETA.....	5
4. ITZULPENA.....	12
5. ITZULPENAREN IRUZKINA .....	59
5.1 Poesiaren hartzailearen generoa .....	59
5.2 Zehaztasun semantikoaren galera .....	61
5.3 Bertso-lerroen luze-laburren aldaketa .....	61
5.4 Dialektalismoak eta kultur erreferentziak.....	63
5.5 Errimaren erabilera .....	65
5.6 Erritmoaren erabilera .....	66
6. ONDORIOAK .....	68
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	69

## 1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honek gaztelaniatik euskararako itzulpena du ardatz nagusi. Ukatu ezinezkoa da bi hizkuntzok elkarren arteko harreman handia izan dutela historian zehar, eta harreman horretatik sortu izan dela bi hizkuntzen arteko literatur truke bat, zeinari esker euskarazko literaturak jaso dituen, itzulpenaren bidez, hainbat eta hainbat obra. Lan honetan ez da, beraz, langa berririk irekiko, ezpada aurretik hamaika literatur itzultzailek egindako lan bera egingo.

Lanaren helburua itzulpen hutsetik harago doa, ordea. Itzulpen-prozesuaren inguruko hausnarketatik abiatutako itzulpena du helburu; hots, xede-testu egoki bat sortzeko, itzulgaiaren eta itzultzeko orduan hartutako erabakien analisi zuhurra egitea.

Lan honetarako Rosamaría Roffielen *Corramos libres ahora* liburuko zenbait poema itzuli dira; hain zuzen, «De mujer a mujer»<sup>1</sup>, «Murmillos al oído», «En tu esencia y tu piel me encuentro, mujer», «Crónica de un amor fallido», «Nostalgia» eta «Tengo sed de amar distinta» ataletako poesiak. Azken edizio honek dituen zazpi ataletatik sei; alegia, lehen edizioko sei atalak. Nolanahi ere, ez dira bertako olerki guzti-guztiak itzuli, horietako sei aurretik itzuliak zirelako Itzulpengintza eta Interpretazio Gradu honen beste ikasgai baterako. Beraz, lan honetatik bazter utzi dira sei olerki horiek, eta itzulpenean bertan «[...]» ikurrak seinalaturik dago non falta diren; hala ere, Eranskinean bildu dira, itzulpen lana osotasunean ikus dadin.

Gradu Amaierako Lan honetarako poesia-itzulpena aukeratzeko arrazoiak hainbat izan diren arren, nagusiena izan da poesia-itzulpena Graduan gutxi landu izana; itzulpen-praktiketako ikasgaietan noiz edo noiz apurtxo bat besterik landu ez denez, lan hau abagune egokitzat hartu baita literatur itzulpen horretan trebatzeko. *Corramos libres ahora* bilduma bere gaiagatik hautatu da nagusiki. Agerikoa da poesian sarri agertzen diren gaiak direla amodioa eta erotikotasuna, baina esan gabe doa amodio eta erotikotasun heterosexuala dela nagusi Mendebaldeko tradizio literarioetan. Azken mendean monopolio hori pitzatzen hasi den arren, aniztasun falta sumatu delako aukeratu da erotikotasun heterosexualetik era hain esplizituan eta aldarrikatzailean aldentzen den obra hau.

Lan honetan, poesia-itzulpenaren inguruko zenbait hausnarketa bildu dira lehenik, itzulpen-prozesuaren oinarria zein izango den zehazten lagunduko dutenak; hurrengo atalean, itzulgaia aztertu egingo da, itzultzaileari itzulpen-jardunerako erabilgarria suerta daitekeen

---

<sup>1</sup> Kakotx latino artean idatzi dira liburuaren atalak, eta poesiak, berriz, goiko kakotxen artean.

informazio guztia testutik erauzteko asmoz; ondoren, itzulgaia eta xede-testua aurkeztuko dira, alboz albo; horren ostean, itzulpen-prozesuan sortutako arazo eta erronka nagusien iruzkina egingo da; eta, azkenik, lanetik atera ahal izan diren ondorioak aurkeztuko dira.

Itzulgaiaren itzulpenak soilik ohiko Gradu Amaierako Lanaren karaktere-mugaren erdia hartzen du; baina lan honek behar bezala islatu behar zituen itzulpen-prozesua eta bertan sortutako arazo eta zailtasunak. Hori dela eta, muga gainditzea zilegitzat jo da, itzulpen hutsa egitea edo dagoeneko itzultako testu baten analisi hutsa egitea baino egokiagoa eta aberasgarriagoa baita biak batzea, eta analisisa azalekoegia izan ez zedin behar-beharrezkoa izan da muga malgutzea. Horrez gain, itzulgaia osorik itzultzea hobetsi da, batasun tematiko eta estilistikoa mantentzeaz gain, itzulgai osoaren itzulpenetik ateratako ondorioek balio handiagoa izango dutelako, han-hemenkako pasarteetan itzulpenetikoak baino, lan osoaren ezaugarri komunak izango direlako aztergai, eta ez poesia batek edo besteak dituzten ezaugarri jakinak.

## 2. POESIA-ITZULPENAREN INGURUKO HAUSNARKETA ZENBAIT

Itzulpen-mota guztien artean, poesia-itzulpenak baditu zenbait bereizgarri, jatorrizko testua ere berezia delako. Honela definitzen du Gerardo Markuletak poema on bat: «[p]oema onak trepeta linguistiko, emoziozko eta adimenezkoa izan nahi du aldi berean, erritmo, musikaltasun, komunikazio, umore eta probokazioa ahaztu gabe. Poema on batean, mezua guztia da» (Markuleta, 2013). Ukaezina da, beraz, konplexutasun izugarrizko testua dela itzultzaileak aurrean izan ohi duena, eta, Pello Zabaletak dioen moduan, ezinezkoa dela sorburu-hizkuntzaren bideak osoki ekartzea itzultzailearen xede-testura (Zabaleta, 1992).

Horrek ez luke, baina, poesia ez itzultzeko aitzakia izan behar, poesia-itzulpenak onura andana baitakarzkie bai itzultzaileari berari eta bai xede-hizkuntzari ere. Izan ere, itzultzaileari bere jardunean trebatzeko beta emango dio, beste testu motek paratuko ez dizkioten oztupoak jarriko baitizkie, eta beste edozein generok eskatuko ez dizkion abileziak beharko baititu ataza gainditzeko. «Entendemos la traducción literaria y poética como una labor estética en la cual la empatía es básica para la comprensión del texto original: por parte del traductor poético es necesaria una fuerte identificación con los actos textuales emocionales» dio Gómez Patok (Gómez Pato, 2012). Beraz, bere hizkuntz gaitasunaz eta itzulpen-gaitasunaz harago, itzultzaileak behar du sentsibilitate literarioa ere, eta, beraz, bere jardunean trebatzeko aukera ezin hobea ematen dio poesia-itzulpenak. Bestalde, xede-hizkuntzarentzako onurak nabariak dira, atzerriko hizkuntzen moldeek eska baitezakete xede-hizkuntzarenak berarenak zertxobait malgotu eta bide berriak bilatzea.

Dena den, ez dago poesia itzultzeko modu bakarra, ez baita gauza bera poesia hitzez hitz itzultzea, estetikari erreparatu gabe, ala estiloa ahal bezainbeste errespetatzea. Xede-testuak ezaugarri ezberdinak izango ditu xede-edizio motaren arabera: edizio kritikoen, elebidunek, xede-hizkuntzakoek... literaltasun eta azalpen maila ezberdinak eskatzen dituzte, eta, beraz, estetika ere aldatu egiten da horrelakoetan. Bestela esanda, itzulpen-jarduna eta xede-testua oso bestelakoa da edizio mota bat izan xede edo bestea. Honako lan honetarako edizio elebatar bat hartu da jomuga, xede-testua soilik izango duena<sup>2</sup>. Hori dela eta, Zabaletak proposatutako bost puntuei jarraiki itzuli dira lan honetako olerkiak:

1. Poesiaren poesia-izaera errespetatuz, edertasuna lehentasun izatea.
2. Jatorrizkoaren moldea ahal den neurrian errespetatzea, baina ezin denean sorkuntza berriak egitea.

---

<sup>2</sup> Euskarazko bertsiotz elebatarra jomuga izan den arren, lan honetan bi bertsiotz alboz albo aurkeztu dira, lan akademiko honen baitan, bien arteko konparaketa errazago egite aldera.

3. Poesiari bere izaera sarri azalak ematen diola kontuan hartzea
4. Itzul ezinezko puntuak itzultzeko beste jokoak erabili ahal izatea, oharren bat behar bada ere.
5. Itzultitako poesia ere poesia izatea. (Zabaleta, 1992)

### 3. ITZULGAIAREN AZTERKETA

Ezin uka daiteke berebizikoa dela edozein itzultzailearentzat itzulgaia ahalik eta ondoen ezagutzea. Haren ezaugarriak xehe-xehe aztertu behar ditu, eta azaleko ezaugarriez gain, testuingurua eta tasun guztiak ere kontuan izan beharra du testua sakon ulertu ahal izateko. Soilik horrela izango du itzultzaileak itzulpen ona egiteko parada, ñabardura asko ezkuta baititzakete lehen irakurraldian agerian ez dauden elementuek.

Hori dela eta, xehetasun handiz aztertu behar izan da itzulgai hau ere, pentsatzekoa baita haren testuinguruak biltzen dituen zertzeladek isla dutela testuaren edukian eta estiloan. Azterketa hori egiteko Nordek egindako itzulpen-jardunerako testu-analisiaren proposamenari jarraitu zaio (Nord, 1991), testuaren barne- eta kanpo-ezaugarrien inguruko azterketa eta hausnarketa behar-beharrezkoak baitira. Lehenik, testuaren kanpo-ezaugarriei helduko zaie; eta, ondoren, barne-ezaugarriei.

Arestian esan bezala, poesia-bilduma honen autorea Rosamaría Roffiel da. Roffiel, idazle izateaz gain, kazetari ere bada, eta urte luzez jardun du egunkari eta aldizkarietan lanean. 1945eko abuztuaren 30ean sortu zen, Veracruzen (Mexiko) eta bost urterekin Mexiko Hirira joan zen bizitzera, aitaren lanbidea zela eta.

Roffiel lesbiana da, bere identitatearen eta sormen literarioaren ulermenerako faktore garrantzitsua da oso. Haren orientazio sexualak isla garbia du, esaterako, bere aktibismoan eta lan honen ardatz den poesia-bildumaren gaien. Horrez gain, Roffielen beraren esanetan, sexu-abusuak jasan zituen haurra zela, eta horrek ere badu isla bere lanean<sup>3</sup>.

Ibilbide emankorra izan du Roffielek kazetari gisa: hainbat egunkari eta komunikabidetan aritu izan baita, herrialde batean baino gehiagotan. Hogei urte zituenetik izan zen kazetari *Excélsior* egunkariko nazioarteko sailean, ia 11 urtez, harik eta egunkaria utzitako beste zenbait kazetarirekin *Proceso* aldizkari politikoa sortu zuen arte. *El Trabajador* Nikaraguako egunkari sandinistaren koordinatzaile ere aritu zen; eta, 1983an, Latinoamerikako lehen aldizkari feministaren zuzendaritzan hasi zen (Martínez, 1993).

Borroka feministan eta LGTBQ borrokan ere aritu izan da gaztetatik, haren hitzetan, «porque tanto las mujeres como los homosexuales y las lesbianas tenemos que luchar permanentemente por nuestros derechos y nunca “bajar la guardia”» (Martínez, 1993). Borroka horietan izandako konpromisoaren erakusgarri dira, besteak beste, 1977. urtetik

---

<sup>3</sup> Ikus *Ezberdin maitatzeko egarri naun* poema (56. or.).



mugimendu feministan militatzeari ekin izana, edota bortxatutako emakumeentzako laguntza zentro bat antolatu izana (Centro de Apoyo a Mujeres Violadas) (Martínez, 1993).

Garaitsu horretan hasi zen Roffiel bere lehen sormen-lanak idazten, eta, apur bat beranduago argitaratu zuen lehen liburua: 1986an kaleratu zuen *Corramos libres ahora*, hain zuzen ere, lan honetan itzulgai duguna bera. Ordutik, beste zenbait lan ere argitaratu ditu; horietatik ezagunena *Amora* da, Mexikoko lehen eleberri lesbiko gisa jotzen dena, hain zuzen ere (Duncan, 2011). Edonola ere, Roffielek ez zuen garai hartan bere burua ez idazle eta ez poeta gisa ikusten: «I never thought I would be a creative writer. [...] I didn't consider myself a poet» (Loisel, 2004).

Hartzaileari dagokionez, kontuan izan behar dira argitaletxearen beraren ezaugarriak, eta baita edizio honenak berarenak ere. Dena den, intentziazko hartzailearen informazio esanguratsua aurki dezakegu liburuaren hitzaurrean bertan ere, honela baitio: «*Querida lectora*: [...]» (Roffiel, 2008). Erabilera horren inguruan bi ideia nagusi etor dakizkiguke burura. Batetik, emakumezko hartzailearentzat pentsatua dagoela liburua; eta, bestetik, femenino pluralaren erabilera aldarrikatzailea dela, gaztelaniak maskulinoa darabilelako plural generikoa adierazteko: «Los nombres apelativos masculinos, cuando se emplean en plural, pueden incluir en su designación a seres de uno y otro sexo» (Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, 2005). Argitaletxearen webguneak argitzen du zeintzuk diren beren argitalpenen intentziazko hartzaileak: «ahora reconocemos la labor de las lesbianas que crean textos para otras lesbianas, y otras(os) lectoras(es) de distintas orientaciones sexuales» (LeSVOZ, A.C., 2014b).

Itzulpenaren oinarri gisa erabilitako edizioa LeSVOZ argitaletxeak plazaratu zuen. Argitaletxea irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 1994. urtean Mexiko Hirian sortua emakume lesbiana talde baten eskutik. Erakundearen lehen helburua izan zen aldizkari lesbiko bat sortzea, denboraren poderioz argitaletxearen sorrera ekarriko zuena (LeSVOZ, A.C., 2014a). Argitaletxeak, materiala plazaratze hutsaz harago, beste zenbait proiektu garatzen ditu, giza eskubideen defentsa eta sustapena helburu dutenak. Bere zeregin nagusitzat du, gainera, emakume lesbianen eskubideak defendatzea eraldaketa sozial progresistaren aldeko apustuaren bidez, eta ikuspegi lesbo-feministatik borrokatzea patriarkatuaren zapalkuntzen aurka (LeSVOZ, A.C., 2014c). Horretarako, argitalpenen inguruko zenbait lehentasun ezarrita ditu argitaletxeak, besteak beste, feminismoa, lesbianismoa eta emakumeen inguruko ikasketei buruz emakume lesbianek idatzitako materialak argitaratzea LeSVOZ aldizkarian edo liburu, e-book, eta beste hainbat formatutan;

beste orientazio sexual batzuetako emakumeen idazkiak plazaratzea lesbianak protagonista badituzte, edo emakumea eta feminismoa gai nagusi badute; eta gizon homosexualen eta pertsona transgeneroen idazkiak kaleratzea, bertan lesbianek presentzia orekatua badute (LeSVOZ, A.C., 2014b). Horrenbestez, argitaletxeak emakume lesbianen eskubideen alde borrokatzeko eta beren ikusgaitasuna hedatzeko espazio bat izatea du helburu, haientzako bilgune bihurtzea eta erreferentziazko proiektuak garatzea emakumearen eskubideen eta disidentzia sexualaren esparruan.

Edizio honen 500 ale argitaratu ziren, eta liburuak berak dio edizio zuzendua eta zabaldua dela (Roffiel, 2008). 2008. urteko edizioa da lan honetarako erabilitakoa: liburu honen hirugarren argitaraldia, hain zuzen, arestian esan bezala, 1986an argitaratu baitzuen lehen aldiz FEMSOL argitaletxeak, eta 1994an Norma Flores publizitate-tailerrak; (Roffiel, 2008). Bi argitaraldien artean hogeita bi urte igaro zirela kontuan izanik, pentsatzekoa da zenbait gauza aldatu dituela autoreak edizio berrikusi honetan. Dena den, lan honetarako ez da jatorrizko edizioaren alerik lortu, eta ezin daiteke jatorrizkoarekin konparaketarik egin.

Edozein poesian bezala, garrantzi handia hartzen du poesia-bilduma honetan funtzio adierazkorrak, Nordek honela deskribatzen duenak, hain zuzen ere: «the expressive function [...] refer's to the senders attitude toward the objects and phenomena of the world» (Nord, 1997). Lan honi dagokion kasuan, ni poetikoa presente dugu bilduma osoan zehar, eta bere sentimenduak azaltzen dizkigu. Horren erakusgarri da lanean zehar lehen pertsonak duen presentzia, hala singularrean nola pluralean. Garrantzitsua da itzultzailearentzat funtzio honi arretaz erreparatzea, izan ere, Nordek berak dioen moduan, «[t]he expressive function is sender-oriented. [...] This means that an expressive function verbalized in the source text has to be interpreted in terms of the source-culture value system» (Nord, 1997).

Bestalde, deitze funtzioak ere presentzia deigarria du poesia-bilduma honetan. Poesia askotan bigarren pertsona bati ari zaio ni poetikoa, eta, beraz, era esplizituan erabiltzen da funtzio hori; izan ere, «[d]irected at the receivers' sensitivity or disposition to act, the appellative function [...] is designed to induce them to respond in a particular way» (Nord, 1997). Irakurleak, beraz, zuzenean jasotzen du ni poetikoaren mezua, berari ari balitzaio bezala, eta horrek erreakzio bat sortzen du irakurlearengan.

Adierazitako ezaugarriak direla medio, ondoriozta daiteke poesia-bilduma honen asmo nagusia dela irakurlearen eta igorlearen arteko lotura bat sortzea, irakurleak jaso ditzan ni poetiko horren hausnarketa eta sentimenduak, eta horiekiko enpatia gara dezan. Roffielek

sarri aipatzen ditu aurreko gertakariak, irakurlearentzat ezezagunak direnak, baina iradoki egiten ditu, azaldu bainoago, irakurlea nolabait istorio horren jakitun balitz bezala jokatu.

Olerki-bilduma honek badu, ordea, beste asmorik ere. Hain zuzen ere, arestian aipatutako hitzaurrean iradokitzen zaigu zein den beste asmo nagusia honako hitz hauen bidez: «[...] el amor no sólo debe decirse al oído, sino, como lo hace la autora, gritarse a los cuatro vientos» (Roffiel, 2008). Liburu honen beste asmoa, beraz, aldarrikatzailea da, ezin uka; gizarteak zokoratutako harreman afektibo-sexualen apologia egiten baitu, ikusgai bihurtzen baititu, horiek sistematikoki zapaltzen dituen gizarte batean.

Orain arte aztertutako kanpo-ezaugarriak bezain garrantzitsuak dira testuaren barne-ezaugarriak, horiek baitira itzultzaileak ahal bezain fidel eman behar dituenak xede-hizkuntzan.

Gaia da horietako bat, eta, hain zuzen, badu olerki-bilduma osoak poesia guztiak batzen dituen ardatz nagusi bat; ni poetikoaren harreman afektibo-sexualak dira, hain justu. Horien aurkikuntza, garapena, oroitzapenak eta harreman horien inguruko hausnarketa dira, besteak beste, poesia hauetan agertzen zaizkigun gai nagusiak.

Liburuak zazpi atal ditu: lehenak, hamahiru poema; bigarrenak, hogeita bi poema; hirugarrenak, hogeita olerki; laugarrenak, zazpi; bosgarrenak bat; seigarrenak ere bakarra; eta zazpigarrenak hogeita bederatzi. Azken atala ez da lan honetarako kontuan izan, hirugarren argitaraldian agertzen delako soilik. Atal gehienetan, baina, ez da argi geratzen zein den atalen banaketarako arrazoia. Bigarren atalean poesia laburrak dauzkagu soilik; eta, azkenekoan, hirugarren edizio honetarako bildutako poesiak; baina beste guztiak modu batera edo bestera taldekatuta egoteko arrazoirik ez dago.

Lexikoari dagokionez, baditu zenbait berezitasun Roffielen lan honek, hain zuzen ere, hiru kategoriatan sailka daitezkeenak. Lehena, autorearen hizkuntz aldaera geografikoari dagokio; bigarrena, kulturemen erabilerari; eta azkena, sarrien darabiltzan esparru semantikoei.

Aipatu da dagoeneko Rosamaría Roffiel Mexikon jaioa eta hezia dela, Latinoamerikako beste zenbait herrialdetan bizi izan den arren. Agerikoa da, beraz, bere hizkuntz aldaera espainol penintsularretik urrun dagoela.

Poeta Mexikokoa izaki, zentzuzkoa da pentsatzea bertako hizkera izango duela nagusi, baina atzerrian denbora luzez bizi izan zenez, izan dezake beste herrialderen bateko eraginik ere. Badira, beraz, espainol penintsularrean beste adierak dituzten hitzak: esaterako, «Crónica

de un fallido amor» ataleko “Cachondeando con el sol” (ikus 49. or.) poesiaren izenburuan bertan aurki dezakegu *cachondear* hitza, espainol penintsularrean lagunarteko hizkeran adarra jotzearen adiera duena. Honakoa ematen du Real Academia Españolaren hiztegiak: «Méz. *Dicho de una persona. Acariciar amorosamente a otra*» (Real Academia Española, 2014). Bestalde, zenbait hitz ez dira ezagunak espainol penintsularren hiztunarentzat, eta ez dira agertzen Mexikoko hizkeraren hiztegietan ere, horien adibide bat da *pércimo* hitza. Beste zenbait hitzek, ostera, penintsulako aldaeran ezagunak izan arren, ezberdintasun txikiak dituzte: *bugambilia* hitza, kasurako, *buganvilla* formaz agertu ohi da espainol penintsularrean, eta *buganvilia* edo *bugambilia* moduan Amerikan, azken hori okertzat jo ohi bada ere (Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, 2005).

Kulturaren berariazko terminoen erabilera ere iruzkintzekoa da, zenbait hitz erabiltzen baititu, mexikarrentzat ohiko edo ezagun izan daitezkeen arren, bertako kultura ezagutzen ez dutenentzat ezagunak izan ez daitezkeen unitate lexikoak, alegia. Horiek izendatzeko *culture-specific item* terminoa darabil Franco Aixelàk, haren hitzetan definituz gero:

«Those textually actualised items whose function and connotations in a source text involve a translation problem in their transference to a target text, whenever this problem is a product of the non-existence of the referred item or of its different intertextual status in the cultural system of the readers of the target text» (Franco Aixelà, 1996)

Argi dago, beraz, horiek ulertzeko ez dela nahikoa hizkuntzaren ezaguera. Hizkuntza hori inguratzen duen testuinguru kulturala ere ezagutu beharra dago. Mexikoko kultura eta euskal irakurlearena ez da bera, eta mexikar batek ezagun izan ditzakeen gauzak agian ez dira ezagun euskaldunarentzat. Horrelakoak ere aurki ditzakegu itzulgaian: *día del grito, soldadera...* Itzulpenaren iruzkinean landuko dira sakonago.

Azkenik, aipatzekoa da Roffielen iruditeriak badituela zenbait elementu liburuan zehar maiz errepikatzen direnak, beraz, esparru semantiko jakinez baliatzen da autorea. Gehien errepikatzen dituen esparru semantikoak dira gorputza (*cuero, muslos, axilas, ojos, vulva, piernas, espalda, pelo, puños, piel, entrepierna, boca, lengua, eta abar*) eta sexua eta harreman afektiboak (*sexo, orgasmo, caricias, pareja, amar, amada, amantes, besarnos, romance, eta abar*).

Autoreak darabilen sintaxiaren dagokionez, esan liteke poesien estiloa nolakoa, halakoa dela sintaxia ere; alegia, askotariko sintaxi motak topa litezke poemetan zehar. Ezin esan liteke ezaugarri bereizgarriarik duenik, eta kasuan-kasuan aztertzea da itzultzailearentzat

estrategia egokiena; alegia, itzuli behar duen poemaren beraren esaldiei erreparatzea, eta ez lan osoan eredu jakinik bilatzea.

Poesien tonuari dagokionez, intimismoa da nagusi, igorlearen eta hartzailearen arteko ekintza komunikatibo pribatua balitz bezala. Autorea hartzaileari aitortzak egiten ari balitzaio bezala darabil hizkuntza Roffielek, intimitate tonua bilatzeko.

Beste bi elementuri ere arretaz begiratu behar zaie poesia-itzulpenaz ari garenean: errimari eta metrikari, hain zuzen. Kasu honetan, argi geratzen da Roffielek ez diela egitura fonometriko jakinei jarraitzen bere poesietan. Ezin esan liteke, aitzitik, ez duela ez bata ez bestea baliatzen nahi duen efektu estetikoa lortzeko.

Metrikari dagokionez, zenbait poesiatan ikus daiteke egitura metriko zurrun baten antza hartzen duen patroiren bat: 11-4-4-4/8-4-4/4-4-4/4-4-4-4-4/8-4-4-4-4 (“Cántico”, ikus 16. or.); beste batzuetan, egitura irregularra den arren, silaba kopuru bera duten bertso-lerroen errepikapena erabiltzen du Roffielek: 7-7-9-8-7-9-7-7-7 (“Acaríciame”, ikus 49. or.); azkenik, badaude guztiz irregularrak diren poesiak ere: 5-6-5-3-10-6-12-12 (“Alquimia”, ikus 17. or.). Azken talde hori da, gainera, oparoena. Luzera anitza dute olerkiek: laburrenak bi bertso-lerro ditu (“La neta”, ikus 26. or.) eta, luzeenak, laurogeita bost (“Tengo sed de amar distinta”, ikus 55. or.).

Errima, bestalde, ez du maiz erabiltzen, biko errimatu isolatu batzuk salbu: «*Huy, qué asco se proclama/(Y en el fondo: ¡Huy, qué ganas!)*» (“¡Huy, qué susto!”), ikus 23. or.). Bi poesiatan, baina, errimaren erabilera oparoa egiten du, liburu osoan ikusten ez den moduko erabilera, hain justu: “Cántico” (ikus 16. or.) eta “Hermana mía” (ikus 36. or.) poesiak dira. Bertan darabilen errima itzulpenaren iruzkinean landuko da sakonago.

Autoreak beste elementu batzuk ere baliatzen ditu bere poesien estetika jakina lortzeko; horiek dira, hain zuzen ere, bertso-lerroen eta hitzen distribuzioa. Ohikoena da poesia baten bertso-lerroak ezkerretara lerratuta egotea, baina *Corramos libres ahora* olerki-bilduman ez da hala bertso-lerro guztiekin, autoreak sarri hasten baititu bertso-lerroak ezkerretara lerratuta daudenak baino eskuinerago. Hortaz, autoreak egitura irregularrak baliatzen ditu poesiak karga estetiko bisuala ere izan dezan. Gainera, noizean behin hizkien eta hitzen distribuzio bereziaz ere baliatzen da Roffiel irakurlearengan eragiteko, esaterako “Cabalgata” (ikus 28. or.) poesian honela idazten du *galopando* hitza, hizkien posizio naturala aldatuz:

« g a l o p a n d o », “Parto con dolor” (ikus 28. or.) poeman ere *pariendo* hitzaren hizkiak bertso-lerro banatan idazten ditu.

Puntuazioa ere modu berezian erabiltzen du Roffielek, ez baitie beti jarraitzen ohiko puntuazio- eta ortotipografia-arauei. Batzuetan erabiltzen du puntuazio-ikurren bat, batez ere komak eta puntuak, baina ez era sistematikoan, maiz aurki baititzakegu poesia osoak puntuazio-ikurrik gabe, enumerazioetako elementuak komaz banatu gabe, etab. Pentsatzekoa da, beraz, propio hartutako erabakia dela.

Nolanahi ere, 2008ko edizio honetan akats tipografiko andana aurki daitezke, eta baita zenbait akats ortografiko ere. Zenbait akats tipografikok pentsaraz diezagukete puntuazio-ikurrak noizbehinka ahaztu egin direla, edo ortotipografia irregularra ez dela beti berariazko hautu baten emaitza, esaterako, “Acaríciame” (ikus 49. or.) poeman honako hau aurkitzen dugu: «*Mi piel está morena,/Justo como te gusta [...] Mi piel está morena,/justo como te gusta*», letra larrien erabilera irregularraren egiazko arrazoia asmatzea ezinezko zaigu, kasu honetan. Beste akats tipografiko batzuk anbiguo bihurtzen dute testua, eta itzultzailea behartzen dute erabaki arriskutsuak hartzera: «*Brota el encuentro/cuarto-universo de/sombra lunares*» (“Alquimia”, ikus 17. or.), hiru interpretazio posible daude bertso-lerro horietarako, adibidez. Bata, *sombras lunares* gisa ulertzea; bestea, *sombra, lunares* moduan; eta azkena, *sombras, lunares* izango balitz bezala. Badago, nolanahi ere, autoreak berak eskuz zuzendutako zenbait akats tipografiko ere, eta horietan saihestu egiten da anbiguotasun oro, zuzenketari esker.

#### 4. ITZULPENA

##### CORRAMOS LIBRES AHORA<sup>4</sup>

###### DE MUJER A MUJER

###### Pida usted un deseo

Una vez quise ser hombre  
para casarme con mi hermana  
que ya lleva tres divorcios.  
Para amar a mis amigas  
que en cada relación mueren un poco.

Quise ser hombre  
para fecundar sus vientres  
no de hijos  
sino de poesía,  
vino tinto  
relojes parados  
unicornios azules.

Para decirle a Josefina  
cuanto admiro su forma de entregarse  
para escribirle a Rosi  
esas cartas que no llegan nunca  
llamar por teléfono a Pilar  
que espera tantas tardes  
llenar de caricias prolongadas  
el espacio de Beatriz  
que vive sola y le tiene  
miedo a los temblores.

Quise ser hombre,  
para amarlas a todas  
y no sentir más  
el frío de sus lágrimas

##### KORRI DEZAGUN ASKE ORAIN

###### EMAKUMEAK EMAKUMEARI

###### Eska ezazu gurari bat

Behin gizon izan nahi izan nuen  
ene ahizparekin ezkontzeko  
jada hiru dibortzio izandakoarekin.  
Nire lagunak maitatzeko  
harreman bakoitzean apur bat hiltzen direnak.

Gizon izan nahi izan nuen  
haien sabelak ernaltzeko,  
ez hurrez,  
baizik eta poesiaz,  
ardo beltzez,  
erloju geldiz  
adarbakar urdinez.

Josefinari esateko  
nola miresten dudan entregatzeko duen era  
Rosiri idazteko  
inoiz iristen ez diren eskutitz horiek  
Pilarri telefonoz deitzeko  
hainbeste arrats zain dagoenari  
fereka luzez betetzeko  
Beatrizen espazioa  
bakarrik bizi eta  
dardaren beldur baita.

Gizon izan nahi izan nuen  
guztiak maitatzeko  
eta gehiago ez sentitzeko  
haien malkoen hotza

---

<sup>4</sup> Itzulgaiarentzat eta itzulpenarentzat 11 puntuko letra-tamaina erabili da, bertso-lerroak ahalik eta gutxien banatu ahal izateko.

en mi playera  
ni mirarlas apagarse  
ni presenciar sus funerales  
en sus ataúdes de treinta años.

Quise ser hombre  
para invitarlas  
a surcar el universo,  
bailar descalzos  
porque la vida  
es el regalo máspreciado,  
para llevarlas del brazo  
hasta una cama  
donde no tengan que fingir orgasmos.

Soy mujer  
y aunque puedo  
compartir con ellas la poesía,  
escribirles cartas  
llamarlas por teléfono,  
llenarlas de caricias prolongadas,  
surcar el universo,  
bailar descalzas  
secar su llanto,  
tocar su alma

no es suficiente.  
no les alcanza.

Porque, desde niñas, aprendieron  
que los hombres son  
un premio  
al que hay que amar,  
sin importar  
si ellos las aman.

ene elastikoan  
haiek itzaltzen ez ikusteko  
haien hiletan lekuko ez izateko  
hogeita hamar urteko haien hilkutxetan.

Gizon izan nahi izan nuen  
haiek gonbidatzeko  
unibertsoa gurutzatzera  
ortozik dantzatzera  
bizitza delako  
oparirik preziatuena,  
besotik helduta eramateko  
orgasmo plantarik egin behar ez duten  
ohe bateraino.

Emakume naiz  
eta haiekin poesia elkarbana  
dezakedan arren  
eskutitzak idatzi  
telefonoz deitu  
fereka luzez bete  
unibertsoa gurutzatu  
ortozik dantzatu  
haien negarra xukatu  
haien arima ukitu

ez da nahikoa  
ez dute aski

Neskatxatetik ikasi baitzuten  
gizonak direla  
sari bat  
haiek bueltan maite  
ala ez  
maitatu beharrekoa.



## Gioconda

Mi vulva es una flor  
es una concha  
un higo  
un terciopelo  
está llena de aromas sabores y rincones  
es color de rosa  
suave íntima carnosa

A mis doce años le brotó pelusa  
una nube de algodón entre mis muslos  
siente vibra sangra se enoja se moja palpita  
[me habla

Guarda celosa entre sus pliegues  
el centro exacto de mi cosmos  
luna diminuta que se inflama  
ola que conduce a otro universo

Cada veinticinco días se torna roja  
estalla  
grita  
entonces la aprieto con mis manos  
le digo palabras de amor en voz muy baja

Es mi segunda boca  
mis cuatro labios  
es traviesa  
retoza  
chorrea  
me empapa

Le gustan las lenguas que se creen mariposas  
los penes solidarios  
la pulpa de ciruela femenina  
o simplemente  
las caricias venidas de mí misma

## Gioconda

Ene bulba lore bat da  
maskor bat da  
piku bat  
belus bat  
bete-betea dago lurrinez zaporez eta txokoz  
larrosa-kolore da  
leun intimo mamitsu

Hamabi urte nituela hazi zitzaion ilexka  
kotoi-laino bat ene hankartean  
sentitu bibratu odoleztatu sumindu busti  
[taupaka niri hizketan

Tolesduren artean gordetzen du mesfidati  
ene kosmosaren zentro zehatza  
gartzen den ilargi ñimiño  
beste unibertso batera daraman olatu

Hogeita bost egunean behin gorritzen da  
leher egiten du  
oihu egiten du  
orduak eskuez estutzen dut  
esaten dizkiot amodio-hitzak baxu-baxu

Ene bigarren ahoa da  
ene lau ezpainak  
bihurri da  
zirri dagi  
zurrustaka  
blaitzen nau

Mingain tximeleta-ustek ditu gogoko  
zakil solidarioak  
emakumezko aranaren mamia  
edo soilik  
nigandik datozkion ferekak

Es pantera  
gacela  
conejo  
se ofrece coqueta si la miman  
se cierra violenta si la ofenden  
es mi cómplice  
es mi amiga  
una eterna sonrisa de mujer complacida.

Pantera da  
gazela  
untxi  
haren burua opaltzen du, txolin, mainatzean  
ixten da, bortxaz, iraintzean  
ene konplize da  
ene lagun da  
emakume asearen betiereko irribarre.

### Orígenes

*Para mi abuela Rosa,  
mi madre Luz y  
mi hermana Elena*

En mí habitan mil mujeres  
cumplen años  
llantos  
rabias

libran guerras en mi cuerpo  
se liberan de grilletes  
se me cuelgan  
me desgarran

Soldaderas del destino  
brujas buenas de los bosques  
prisioneras de los mitos  
encerradas en telares  
en iglesias  
en fogones

### Jatorria

*Rosa ene amonarentzat,  
Luz ene amarentzat eta  
Elena ene ahizparentzat*

Nigan mila emakume bizi dira  
betetzen dituzte urteak  
negarrak  
amorrak

gudatan dabilta ene gorputzean  
askatzen dituzte bilurrak  
zintzilikatzen zaizkit  
urratzen naute.

Patuaren soldadera<sup>5</sup>  
basoko sorgin zintzo  
mitoetako preso  
giltzapeturik ehundegietan  
elizetan  
sukaldeetan

---

<sup>5</sup> Soldaderak edo adelitak Mexikoko iraultzan parte hartu zuten emakumeak izan ziren. (Itzultzailearen oharra)

fueron roca  
arena  
agua

sangre  
luna  
montes

Siento voces en mis venas  
alaridos en el alma  
carcajadas en mi entraña

son mis madres  
mis abuelas  
mis hermanas

Es mi historia que me llama.

izan ziren harkaitz  
hondar  
ur

odol  
ilargi  
mendi

Ahotsak sentitzen ditut ene zainetan  
intziriak ariman  
algarak ene erraietan

ene amak dira  
ene amonak  
ene ahizpak

Ene historia da niri deika

### **Cántico**

Me gustan las mujeres esdrújulas  
sin brújula  
sin mítica  
con tónica

Las que aman con las vísceras  
las células  
las glándulas

Las rítmicas  
intrépidas  
impúdicas

Las pérfidas  
ingrávidas  
poéticas

### **Kantika**

Laket ditut azentudun emazteak  
ez xederik  
ez mitorik  
ezohikoak

Maite badute erraiekin  
hezurrekin  
guruinekin

Baldin badira erritmiko  
beldurgabe  
haragikoi

azpisuge  
etereo  
poetiko

las mágicas  
las lésbicas  
lunáticas

bai magiko  
bai lesbiko  
lunatiko

Me gustas tú, Andrómeda  
erótica  
magnífica  
política  
MUJÉRICA.

Gustuko haut, hi, Andromeda  
erotiko  
berealdiko  
politiko  
ANDEREZKO

[...]

[...]

### **Alquimia**

Brota el encuentro  
cuarto-universo de  
sombra lunares  
silencios  
copas repletas de anís o de vino  
de hielo en las bocas  
de vientres unidos en viajes terrenos  
en goces continuos de toda una tarde.

La magia se duerme  
pegada a nosotras  
las tres somos una  
que gime y se enreda  
que siente en su espalda  
el rocío de la cama  
mientras la ventana nos mira indiscreta  
le cuenta a la luna  
que nos ha sorprendido

Que somos mujeres llenas de deseo

### **Alkimia**

Erne da enkontrua  
laugarren unibertso  
ilargi-itzalena  
isiluneena  
anisez edo ardoz beteriko kopena  
ahoetako izotzena  
arrats oso bateko gozamen jarraien  
bidaia mundutarretan batutako sabelena.

Magia lokartzen  
gure ondo-ondoan  
hirurok gara bat  
auhendatzen duena eta endredatzen dena  
bizkarrean sentitzen duena  
ohearen ihintza  
leihoak lotsagabe begiratzen digun bitartean  
esaten dio ilargiari  
ustekabeen harrapatu gaituela

Desiraz betetako emakumeak garela

que tenemos alas brotando del cuerpo  
que volamos juntas cuando nos amamos  
porque desciframos la historia del mundo  
la absurda mentira del fruto prohibido.

### **Autopista México-Puebla**

*Para Amparo,  
porque lo vivimos juntas*

Ibas desnuda por la carretera  
con tu cuerpo adolescente llagado  
por los cardos de un cigarro

Ibas descalza  
con la mirada puesta  
en un mundo oscuro, lejano

Ibas sola con el pelo revuelto  
la risa ausente  
los puños crispados

Ibas andando en silencio  
sin ayuda  
sin llanto

Ibas buscando la muerte  
con la vida hecha trizas  
a tus dieciséis años

Ibas con el sexo herido  
con el alma tierna  
estatua en añicos

Ibas espejo, espejito

hegoak erne zaizkigula gorputzetik  
batera egiten dugula hegan elkar maitatzean  
deszifratzen dugulako munduko historia  
fruitu debekatuaren gezur zentzugabea.

### **Mexiko-Puebla autobidea**

*Amparorentzako,*  
*elkarrekin bizi izan genuelako*

Bahindoan biluzik errepidean behera  
hire gorputz nerabea  
zigarro baten kardoek zauriturik

Bahindoan ortozik  
hire begirada  
mundo ilun, urrun batean galdurik

Bahindoan bakarrik ilea nahasirik  
barrea galdurik  
ukabilak gogorturik

Bahindoan oinez isilik  
laguntzarik gabe  
negarrik gabe

Bahindoan heriotzaren bila  
bizitza suntsiturik  
hamasei urterekin

Bahindoan sexua zauriturik  
arima xamurturik  
estatua birrindu hori

Bahindoan ispilu, ispilutxo

mujercita en ciernes  
hermanita mía

Ibas, y yo iba contigo

### Reencuentro

Me desvisto  
por el puro placer de ver  
mi cuerpo de mujer en el espejo  
de mirar cada parte aparecer  
y sorprenderme  
como si fuera la primera vez que me  
[contemplo  
de tocarme los senos  
de sentir cómo vivo en cada uno de mis  
[rincones  
de percibir mi aroma que es sólo mío  
y que es único  
aunque no sea siempre el mismo.

Mi cuerpo de mujer  
descubierto hace apenas unas reuniones  
[feministas  
y algunos amantes  
mi cuerpo parvulitos de sexualidad  
mi cuerpo que crece y decrece conmigo  
mi cuerpo que amo por sobre todas las cosas  
y pese a todos los siglos de los siglos  
amén.

neskatxa izateko atarian  
ene ahizpatxo

Bahindoan, eta ni banindoanan hirekin.

### Berraurkitzea

Biluzten naiz  
ene emakume-gorputza ispiluan  
ikustearen plazer hutsagatik  
atal bakoitza agertzen ikusi  
eta harritzen bainaiz  
neure burua begizatzen dudan lehen aldia  
[balitz bezala  
ene bularrak ukitzen ditut  
ene izkinetako bakoitzean nola bizi naizen  
[sumatzen dut  
enea den lurrina hartzen dut  
eta soilik enea  
beti bera ez bada ere.

Ene emakume-gorputza  
bilera feminista gutxi batzuk dira soilik  
[aurkitu nuela  
eta zenbait amorante  
ene gorputza sexualitatearen haureskola  
ene gorputza nirekin hazten eta txikitzen da  
ene gorputza ezeren ginetik maite dudana  
gizaldi eta gizaldi guztiak izanagatik  
amen.

## **Amando, amando**

*Para Pilar*

Pretendo morir amando

Amando las noches estrelladas  
la música que nace en mis caderas  
la poesía que escribo y la que está en los lirios

Amando la fuerza de la vida  
la risa loca de las mujeres  
la soledad que me permite amarme

Amando el encuentro de dos cuerpos  
las horas de caricias  
de ternura, de sexo

No importa si cumplo cien años  
si mi sangre se ausenta  
si mi piel se marchitan  
no importa

Amando, pretendo morir amando.

## **Maitatuz, maitatuz**

*Pilarrentzat*

Maitatuz hiltzeko asmotan nago

Maitatuz gau izardunak  
ene aldaketan jaio den musika  
idazten dudana poesia eta lilietan dagoena

Maitatuz bizitzaren indarra  
emakumeen irri zoroa  
neure burua maitatzen uzten didan bakardadea

Maitatuz bi gorputzen enkontrua  
ordu luzetan ferekak  
xamurtasuna, sexua

Bost axola ehun urte betetzen baditut  
ene odola galtzen bada  
ene azala ihartzen bada  
bost axola

Maitatuz hiltzeko asmotan nago, maitatuz.

## **Historia**

*Para Mar, de cuyo corazón  
brotó este poema*

Nací mujer e intentaron convencerme  
que esto era pecado

Como herencia recibí el miedo  
el silencio  
la vergüenza

## **Historia**

*Marrentzat, haren bihotzetik  
jaio baitzen poema hau*

Emakume jaio nintzen eta sinetsarazi nahi izan  
[zidaten  
bekatua zela hori

Herentzia gisa jaso nituen beldurra  
isiltasuna  
lotsa

No te toques

No te mires

No te ames

Con los años, enfermé de impotencia

Con los años, del dolor surgió la fuerza

Me fui curando a través de violaciones

del grito en medio de una misa

de los tajos en mi entraña

Me fui curando acercándome a mi historia

atreviéndome al llanto y a la risa

Así llegué a encontrar a las mujeres

así llegué a su mundo de amatista

y me dije:

Esto tiene que ver más conmigo misma

con mis ganas de explotar

con mi idea de la vida

del amor

del viento

Esto tiene que ver más con el Cosmos,

que es de donde vengo.

Ez ezan uki

Ez ezan beha

Ez ezan maita heure burua

Urteen poderioz, ezintasunak jo ninduen

Urteen poderioz, jaio zen oinazetik indarra

Sendatu nintzen apurka bortxaketen bidez

meza baten erdian entzundako oihuaz

ene erraien ebakiez

Osatu nintzen emeki ene historiara hurbilduz

ausartzen negar eta barre egiten

Horrela aurkitu nituen emakumeak

horrela iritsi nintzen haien amatista-mundura

eta esan nuen ene artean:

Honek zerikusi handiagoa du neure

buruarekin

ene leher egiteko gogoekin

ene bizitzaren ideiarekin

amodioarenarekin

haizearenarekin

Honek zerikusi handiagoa du Kosmosarekin

eta bertatik nator ni.

### **Destino mayor**

*Para Verónica Ortíz*

Nacimos para estar solas

Existimos con la conciencia en carne viva

Dando saltos mortales cotidianos

### **Patu nagusia**

*Verónica Ortizentzat*

Bakarrik egoteko jaio ginen

Existitzen gara, kontzientzia haragi bizitan,

Ohiko zilipurdiak eginez



Alguna madre cósmica nos amamantó con fuego  
para abandonarnos en una tierra  
donde por ser se paga un precio

Aprendimos a mordernos el deseo  
a templarnos la sangre  
a dominar el ansia

Estamos hechas de ciclos  
de silencios  
de nostalgia

Habitantes temporales del amor,  
somos nuestra media naranja  
nuestra propia pareja  
nuestra pasión más fiel

A veces, la soledad nos punza  
el mundo nos desgaja  
entonces, ahí está el mar  
y la palabra.

### **¡Huy, qué susto!**

Somos volteadas  
invertidas, divertidas  
(y soñadas)

Somos cuadradas y redondas  
triangulares y picudas

Somos geniales,  
magistrales, teatrales  
musicales

Somos mayúsculas,

Ama kosmikoren batek suz eradoski gintuen  
gero abandonatzeko lurralde batean  
non izateagatik ordaindu egiten den

Ikasi genuen desirari hozka eusten  
odola baretzen  
grina menderatzen

Eginak gaude zikloz  
isiltasunez  
nostalgiaz

Geure aldi bateko amodioaren biztanle  
geure laranja erdia gara  
geure bikotekide  
geure pasio leialena

Noizean behin, bakardadean ziztatzen gaitu  
munduak erauzten gaitu  
orduak, hor dago itsasoa  
eta hitza.

### **Ui, hau ikara!**

Irauliak gara  
inbertituak, indarberrituak  
(eta amestuak)

Karratuak gara eta biribilak  
triangeluarrak eta zorrotzak

Egundokoak gara,  
maisulanak; teatralak  
musikalak

Maiuskulak gara,

minúsculas, esdrújulas

Somos sirenas

Somos hadas

Somos medusas

Somos magas

Se dice que comemos carne humana  
mas no todas, no lo crean,  
también hay vegetarianas

Alguien afirma que nos gustan las  
[espuelas  
mas no a todas, no lo crean  
existen miles de tacones y de medias

Hay quienes juran y aseguran  
que salen llamas cuando amamos  
que han visto chispas cuando el sueter nos  
quitamos  
que predecimos el futuro y somos malas  
¡huy, qué malas!

La palabra da temores,  
da sudores y estertores

Da rasquiña y urticaria

Si se dice es en voz baja,  
o de plano se dice

Huy, qué asco, se proclama  
(y en el fondo: ¡Huy, qué ganas!)

Sí, señoras. Sí, señores.  
No se asusten. No hay alarma.  
Todo es simple en esta vida

Somos mujeres. Somos lesbianas.  
Y, como ustedes, somos Alma.

minuskulak, azentudunak

Sirenak gara

Maitagarriak gara

Medusak gara

Aztiak gara

Jaten omen dugu giza haragia  
baina ez guztiok, ez pentsa,  
begetarianoak ere badira

Ezproiak gustuko ditugula diote  
baina ez guztiok, ez pentsa,  
badira takoi eta galtzetazaleak milaka

Badago esaten eta zin egiten duenik  
garrak darizkigula maitatzean  
ikusi dituztela txinpartak jertsea  
eranztean  
geroaren igarle garela, eta gaiztoak  
ui, bai gaiztoak!

Izua dakar hitzak,  
izerdi eta ezindura

Ematen du azkura eta urtikaria

Esaten bada, izan ohi da beti ahapeka,  
edo esaten da garbi

Ui, hau nazka, aldarrika  
(eta egiaz: ui, hau irrika!)

Bai, andreak. Bai, jaunak.  
Ez izutu. Ez kezka.  
Guztia da erraz bizitza honetan.

Emakumeak gara. Lesbianak gara.  
Eta, zuek bezala, Arima gara.

## MURMULLOS AL OÍDO

[...]

### **Disidente**

No nací para amar  
todos los días  
a la misma hora  
por el mismo canal  
ni en la misma cama.

### **¿Masoquista?**

Prefiero el peligro de quererte  
al riesgo de no haberte conocido.

### **Miradas**

Y tus ojos como trozos de ámbar  
vuelven verde mi sangre y toda yo  
soy un árbol desbordante de savia.

### **Urna**

Tu piel está hecha para depositar secretos.  
Tu entrepierna para buscarlos.

## XUXURLAK BELARRIRA

[...]

### **Disidente**

Ez nintzen jaio maitatzeko  
egunero  
ordu berean  
kanal beretik  
ezta ohe berean ere.

### **Masokista?**

Nahiago dinat hi maitatzeko perila  
hi ez ezagutu izanaren arriskua baino.

### **Begiradak**

Eta hire anbar pusken pareko begiek  
bihurtzen ditene odola berde eta ni osorik  
naun zuhaitz bat izerdiz lepo

### **Kutxa**

Hire azala sekretuak uzteko egina zagon.  
Hire hankartea, bertan bilatzeko.

### **Retrato hablado**

Mi amada es una mujer despierta  
que bebe versos sobre mi cuerpo.

### **Ahozko potreta**

Nire maitea emakume argia da  
ene gorputz gainean bertsoak edaten dituena.

### **Lugar común**

Es que tú  
Es que yo  
Es que el miedo...

### **Leku komuna**

*Para Claudia*

*Claudiarentzat*

Izan ere hi  
izan ere ni  
izan ere beldurra...

### **Ni modo...**

La vida tomó la decisión  
que tú y yo  
estuviéramos  
siempre  
irremediamentejuntas

### **Modurik ez...**

Bizitzak hartu zinan erabakia  
hi eta ni  
beti  
egoteko  
ezinbesteanbatera

### **Amanecer**

Duerme la tierra  
sus voces se han callado  
sólo tu nombre es cierto  
sólo eso.

### **Egunsentia**

Lurra lo zagon  
isildu ditun haren ahotsak  
soilik hire izena dun egia  
soilik hori.

### **Inversión térmica**

*Para Adriana*

Somos hijas del destiempo.  
Yo, en pleno otoño.  
Tú, primavera miedosa de mis vendavales.

### **Iraultze termikoa**

*Adrianarentzat*

Destenorearen alabak gaitun.  
Ni, udazken betean  
Hi, nire haizeteen udaberri izu.

### **Knock-out**

*Para Adriana*

Somos dos perdedoras.  
Nos derrota este amor  
                  tan obstinado  
                  tan terco  
                  tan nuestro.

### **Knock-out**

*Adrianarentzat*

Bi galtzaile gaitun.  
Maitasun honek garaitzen gaitin  
  honen egoskor  
  honen temati  
  honen geure.

### **Así es la vida...**

Llamaste y  
se me olvidó enseguida  
que ya te había olvidado.

### **Horrelakoa dun bizitza...**

Deitu hunan eta  
azkar batean ahantzi ninan  
ahantzi hindudala jada.

### **La neta**

¿Y qué carajos extraño de ti,  
                  si no me dabas nada?

### **Egia esan**

Hire zer arraioren falta sumatzen dinat  
                  ezer ematen ez ba hidanan?

### **Suspiro**

Yo ya no soy yo

Soy tu mirada  
y tú, mi deseo.

### **Hasperen**

Ni ez naun jada ni

Hire begirada naun  
eta hi, ene desira.

### **Paisajes**

Tu sexo,  
qué tibio  
qué suave

Es un trozo de lumbre  
un rayo de luna  
un bosque de albahaca.

[...]

### **Paisaiak**

Hire sexua  
bai epel  
bai leun

Su puska bat dun  
ilargi-errainu bat  
albaka baso bat.

[...]

### **Instantes**

¿Para qué el miedo,  
si el deseo se vertía entre los muslos  
hasta hacernos rodar sobre la  
[alfombra?

### **Instantak**

Zertarako ikara,  
desira hankartean bazerion  
gu alfonbran biraka ibilarazi arte?

## Cabalgata

*Para Mar,  
quien escribió  
la mitad de este poema*

Nuestras pieles montadas en una,

g a l o p a n d o

Podríamos trotar al infinito  
y perder miedos como locas

¡tantos!

[...]

## Zamalkatzea

*Marrentzat  
poema honen  
erdia idatzi baitzuen*

Gure azalak elkar zamalkatzen, azal bakar,

l a u h a z k a

Infinitoraino trostan ibil gintezkenan  
zoroak nola beldurrak galdu

hainbeste (beldur)!

[...]

## Parto con dolor

Ayer estuviste tan triste  
que me pasé el día

p  
a  
r  
i  
e  
n  
d  
o

tristezas.

## Erdiminak

Horren triste egon zinen atzo  
egun osoa eman nuen

e  
r  
d  
i  
t  
z  
e  
n

tristurak.

### **Danzón delicado**

Me gusta bailar  
mover las caderas  
sentir las notas  
que me penetran  
una y otra vez  
en un interminable  
rítmico y placentero  
orgasmo musical.

### **D.F.**

Habría que traer al  
mar en el bolsillo y  
sacarlo en pleno periférico  
para olvidarse de la neura  
un rato.

### **Dantzazale delikatu**

Gustuko dut dantzatzea  
aldakak mugitzea  
notak sentitzea  
nigan sartzean  
behin eta berriz,  
amaigabeko  
erritmozko eta plazerezko  
orgasmo musikal.

### **Mexiko Hiria**

Ekarri beharko litzateke  
itsasoa patrikan eta  
Periferikoan bertan atera  
obsesioaz ahazteko  
apur batez.



**EN TU ESENCIA Y TU PIEL ME  
ENCUENTRO, MUJER**

**De cara al horizonte**

*Para tí, Terciopela*

Me aproximo a mí misma  
en la calma tierna de tu ser entero

Y nos recuerdo  
intercambiando un centelleo único  
un tiempo irremediamente nuestro  
de rosas y de azules sollozos contenidos  
hablándonos con una lengua antigua  
de manos que comparten una misma historia.

Te descubro y te quiero  
con la plena conciencia  
de cómo debo colocarte  
en este ser tan mío,  
haciendo a un lado la vehemencia  
adoptando una medida antaño combatida  
alimentándome de tu ternura tímida  
percibida apenas en el atrevimiento  
de tus dedos en mi cara,  
o en esa mirada que a veces se te escapa  
por entre alguna rendija de tus muros.

Y sé que contigo una tiene  
que ser suave  
y perseverante

**HIRE ESENTZIAN ETA AZALEAN  
AURKITZEN NAUN, EMAKUME**

**Zerumugari so**

*Hiretzat, Terciopela*

Neure buruarengana inguratzen naun  
hire izate osoaren lasaitasun xamurrean

Eta gutaz oroitzen naun  
dirdira berdingabe bat trukutzen geninala  
ezinbestean geure hunan garai bat  
larrosena eta eutsitako negar-zotin urdinena  
elkarrekin solasean hizkuntza zahar batez  
historia bera duten eskuenaz.

Aurkitzen haut eta maitatzen  
hain enea den izate honetan  
nola kokatu behar haudan  
kontzientzia osoz,  
suhertasuna bazter utziz  
aspaldi oldartu nintzaion izaria hartuz  
elikatuz hire xamurtasun lotsatiaz  
hire hatzek ene bisaian diten  
atrebentzian apenas sumatutakoaz,  
edo so horretan, lantzean ihes dagienean  
hire murruean arrakalaren batetik.

Eta bazakinat hirekin  
behar dela leun izan  
eta temati

y ser,  
deveras.

Y saber cuándo guardar silencio  
para escuchar así tu voz callada  
y hablar en el momento preciso  
en el que,  
encerrada en ti misma,  
necesitas otra voz de mujer  
para reconocerte en ella.

Y esperarte  
y sentirte salir al encuentro  
de tus propias emociones  
y volverme tu cómplice absoluta  
aunque no sea a mí  
a quien deseas

Porque  
después de todo  
eso qué importa  
si a tu esencia  
la siento  
cada vez  
más  
cerca.

### **Promessa**

*Para tí, Terciopela*

En una tarde cualquiera  
en el momento preciso  
saldré al encuentro de tu boca

eta behar dela izan,  
egiaz.

Eta jakin noiz isilik egon  
entzuteko hire ahots isila  
eta hitz egin noiz  
eta,  
herorrengan giltzapean,  
behar dunanean beste emakume ahots bat  
bertan herori ezagutzeko.

Eta hire zain egon  
eta hi sentitu irteten  
hire emozioen bidera  
eta heure konplize absolutu bihurtu  
nahiz ez izan ni  
desiratzen dunana

Ze  
azken batean  
zer axola zion  
hire esentzia  
sentitzen badinat  
geroz eta  
are eta  
gertuago.

### **Promessa**

*Hiretzat, Terciopela*

Halako arrats batez  
une egokian  
irtengo naun hire ahoaren bidera

me llenaré de sol en el verano de tu vientre  
besaré con la palma de mi mano  
el pico de tus pechos-paloma  
te regalaré un caracol entero  
para depositarlo entre tus muslos,  
floridos por un deseo a punto de ser descubierto  
tras un amor de esencias  
frente al mar.

[...]

### **Romance de mar y luna**

*Para una mariposa*

Como ofrenda vívida de Yemanjá  
la diosa solitaria  
brotas del mar repleta de corales  
la piel brillándote de luna  
la orquídea de tu pubis abriéndose en el aire

Aislada en tu mundo de sirena  
no hay marino para oír tu canto  
taciturna hilandera ante su rueca  
sueñas con el amor

lo esperas

Sobre tu manto de lentejuelas  
de cara a las estrellas  
interrogas a la noche  
deshojas caracolas  
repites, en voz baja, mil

[poemas

beteko naun eguzkiz hire sabelaren udan  
musukatuko dinat ene esku ahurraz  
hire bular-usoen mokoia  
barraskilo oso bat oparituko dinat  
uzteko hire izter artean,  
biak loretsu inork aurkitzeko zorian den desio batez  
lurrinezko amodio baten gibelean  
itsasaurrean.

[...]

### **Ilargi eta itsaso erromantze**

*Tximeleta batentzat*

Jemanjaren opagai bizi gisa  
jainkosa bakartiarena  
jalgi haiz itsasotik koralez betea  
azala ilargiz dir-dir  
hire pubiseko orkidea airean zabalduz

Isolaturik hire sirena munduan  
ez zagon marinelik hire kantua entzuteko  
ehole goibel bere goru aurrean  
amets dun amodioa

haren esperoan hago

Hire ezkatazko mantu gainean  
izarren parean  
itauntzen dun gaua  
hostokatzen ditun maskorrak  
errepikatzen ditun, ahapeka,

[mila poema

pero los barcos pasan  
los siglos hacen llaga  
la playa es un reloj de arena

No hay faros que se enciendan  
gotas de sal resbalan a tus labios  
entreabiertos en monótona plegaria  
sólo el silencio te responde  
un silencio te responde  
un silencio de ausencia  
de silencios.

Ola cansada,  
diluyes tu sombra de sándalo en la espuma  
vuelves al mar cubierta de tristeza  
mientras yo,  
reflejo tuyo,  
de entre el fondo del cielo te contemplo  
amándote desde la misma luna.

### **Buenos propósitos**

*Para la misma mariposa*

Hoy me propuse luchar  
contra este amor que empieza  
hacer caso omiso de la curva de tu espalda  
de tus pechos libres llamándome  
bajo la tela transparente de tu blusa  
del contoneo de tu risa  
de tu piel fogata

Decidí no conmovirme ante  
tu rostro de gacela herida

baina pasatzen ditun itsasontziak  
zauritzen dinatzen mendeek  
hondartza hareara-erlojua dun

Ez zagon piztuko den itsasargirik  
gatz tantak irristan hire ezpainetan  
otoitz monotonoz erdi-zabalik  
isiltasunak din erantzuten soilik  
isiltasun batek din erantzuten  
isiltasunen ausentziaren  
isiltasun batek.

Uhin unatu,  
diluitzen dun hire sandalo-itxala bitsetan  
bueltan haiz itsasora tristuraz lepo  
bitartean ni,  
hire isla,  
zeru hondotik nagon hiri so  
ilargitik bertatik hi maitatzen.

### **Asmo onak**

*Tximeleta berarentzat*

Gaur borroka ninan asmo  
hastear den amodio honen aurka  
ezikusiarena egin niezaion hire bizkar-kurbari  
hire bular askeei  
oihal gardenpean niri deika  
hire irriaren gerri-dantzari  
hire su-azalari

Erabaki ninan ez hunkitzea  
hire gazela zauritu aurpegi aurrean  
ez pentsatzea nigan hire zilborrean

no pensarme en la fuente de dicha  
    que guardas en tu ombligo  
en el palomar de tus caderas  
ni en la bugambilia de tu lengua

No dejarme envolver por el ámbar de tu carne  
por las llamaradas de tu pelo  
por tu mirada

Esta vez, voy a quererme un poco  
a no inventar que podrías amarme  
a no esperar de ti  
    eso que tú esperas de otro

Esta vez, renunciaré a los sueños  
levantaré murallas  
cavaré a mi alrededor  
    cincuenta fosos

Esta vez, no tendrás cabida en mi presente  
Esta vez, no voy a provocarme otra muerte.

### **Una vez sí basta**

No importa si  
nunca más  
volvemos a hacer el amor  
ni siquiera  
si volvemos a vernos.

Sólo te pido:  
no lo destruyas  
ni por miedo  
    ni por olvido  
    ni por flojera.

gotortuta dunan zorion-iturrian  
ez hire aldaken usategian  
ezta hire mingainaren buganbilean.

Ez nezan utz bil nintzan hire mamiaren anbarak  
hire ilearen sugarrek  
hire soak

Oraingoan, apur bat maitatuko dinat neure burua  
ez dinat asmatuko maite nintzakenanik  
ez dinat higandik espero izango  
    hik beste batengandik espero dunana

Oraingoan, uko egingo zienat ametsei  
eraikiko ditinat harresiak  
zulatuko ditinat ene inguruan  
    berrogeita hamar hobi

Oraingoan, ez dun izango lekuri ene orainean  
Oraingoan, ez zionat beste heriotzarik eragingo  
    [neure buruari.

### **Behin badun aski**

Bost axola  
inoiz ez  
badinagu amodiorik egiten berriz  
edo are  
berriz elkar ikusten ez badinagu.

Soilik eskatzen dinat:  
ez ezan suntsi  
ez beldurratik  
    ez ahanzturagatik  
    ez ahultasunagatik.

## Razones

Porque eres mía y no  
porque me gusta como me besas

porque tu piel huele a almendro  
y tu sexo a fruta fresca

porque podrías ser un pércimo  
pero también una reina

porque eres un colibrí gozoso sobre mi cuerpo  
porque me dejas la carne latiendo con tu deseo

porque te excitan mis pechos y sabes leer en  
[ellos

porque me inventas palabras que son  
cantos de universos

porque estás hecha de los mares  
y estás hecha de la tierra

porque llevas en la entraña mil palomas  
[mensajeras

porque tus ojos contienen los reflejos de tu  
[parque

porque eres un alquimista que  
transforma los pesares

porque le hablas a las piedras  
y danzas con los cristales

porque eres mujer pagana y eres mujer sagrada

porque eres mía y no  
porque eres mi amante y mi amada.

## Arrazoiak

Neurea haizelako eta ez  
gogoko dudalako nola musukatzen naunan

hire azalak duelako almendrondo usaina  
eta hire sexuak fruta freskoarena

izan haitekeelako fruitu  
baina baita erregina ere

hi haizelako kolibri amultsu ene gorputz gainean  
uzten didanalako haragia hire desiraz taupaka

kitzikatzen hautelako ene bularrek eta leitzen  
[dakinalako bertan

asmatzen dizkidanalako hitzak  
unibertsoen kantu direnak

itsasoz hagoelako egina  
eta egina hagoelako lurrez

erraietan daramatzanalako mila uso mezulari

begietan ditunalako gorderik hire parkearen  
[islak

alkimista haizelako  
nahigabeak transformatzen dituen

mintzo haizelako harriei  
eta kristalekin dantzatzen haizelako

emakume pagano haizelako eta emakume sakratu

nire haizelako eta ez  
nire maitale haizelako eta nire maitatu.

## Mar

Pájara bruja gitana  
sin lazos ni casa  
caminante llegada de tierras lejanas  
colores y sedas por todo equipaje

Te pido:

sigue loca  
sigue maga  
sigue poeta

Sigue tu senda de mujer cometa  
no cambies ni te detengas  
cumple destinos de vidas pasadas  
comparte tu fuerza tu luz tus poemas

Y si alguna otra vez  
nuestras vidas se encuentran  
correré a tu risa  
correré a tus brazos de mujer inmensa.

## Hermana mía

Nunca lo imaginamos nunca

Éramos como hermanas  
que se cuentan  
que se abrazan  
que se comparten la vida  
la poesía  
la risa

Tarde inquieta de domingo

## Mar

Azeri sorgin ijito  
loturarik eta etxerik gabea  
urrungo lurretatik etorritako bidelari  
kolore eta zetak ekipaje bakar

Eskatzen dinat:

jarrai zoro  
jarrai azti  
jarrai poeta

Jarrai hire kometa-emakume bidea  
ez hadi alda eta ez geldi  
bete iragan bizien patuak  
bana itzan hire indarra hire argia hire poemak

Eta noizbait  
egiten baditen topo geure biziek  
joango naun lasterka hire barrerantz  
lasterka hire emakume egundokoaren besoetara.

## Ene ahizpa

*Para Mar*

Inoiz ez geninan imajinatu inoiz

Ahizpen gisakoak gintunan  
elkarri kontatzen  
elkar besarkatzen  
elkarri emanaz bizia  
poesia  
irria

*Marrentzat*

Igande arrats egonezina

distintos besos  
miradas distintas

Éramos otras pero también las mismas

Dos amigas atrapadas por el desconcierto  
el deseo corriéndoles el cuerpo

Tarde de azoro  
de sentires nuevos  
de un poco de miedo

Qué dulce pasión  
qué erótico juego  
qué gozoso incesto

Aromas y jugos nos bañan  
la tarde se sacia, igual que las ganas

Exhaustas  
plenas  
quedamos  
las dos

más cerca  
más cómplices  
más hermanas.

### **Adaggio**

Mi mano es tu mano  
me la paso por el cuerpo  
por el vientre  
por los senos

musu ezberdinak  
ezberdinak begiradak

Beste batzuk gintunan baina berberak ere bai

Bi lagun nahasmenak atzemanak  
desira gorputzetan barrena

Arratsean lotsa  
sentipen berriak  
beldur txikiak

Hau pasio gozoa  
hau joko erotikoa  
hau intzestu gozoa

Lurrinek eta zukuek blaitzen gaitizten  
arratsa ase, nola gogoak asetzen diren

Akituta  
beteta  
gelditu gintunan  
biok  
gertuago  
konplizeago  
ahizpago.

### **Adaggio**

*Para Julia,  
quien lo hizo surgir*

Ene eskua hire eskua dun  
pasa dinat gorputzetik  
sabeletik  
bularretatik

*Juliarentzat,  
sorrarazi zuenarentzat*



me detengo en los pezones  
los aprieto  
la llevo a mis muslos  
bajo

subo

afuera

en medio

vuelvo al vientre  
a mis pechos  
a mi cuello.

Mi mano es tu mano  
llego al pubis  
juego

oprimo

abro

me recibe lo caliente  
los dedos se me queman  
se me empapan  
se deslizan  
se resbalan.

Mi mano es tu mano  
la absorbo  
me toco los pliegues  
regreso a mis ingles  
delineo

despacio

mi sexo

encuentro mis rizos mojados  
los peino  
los mimo  
los jalo.

Mi mano es tu mano  
gozosa atrevida risueña  
se mete indiscreta  
me besa en la boca

gelditu naun titiburuetan  
estutzen ditinat  
ene izterrera zaramanat  
jaitsi

igo

kanpora

erdira

sabelera bueltan  
ene bularretara  
ene lepora.

Ene eskua hire eskua dun  
iritsi naun pubisera  
jostatzen naun

sakatzen dinat

irekitzen

epelak hartzen nain  
hatzak erretzen zaizkidan  
busti egiten zaizkidan  
irrist egiten ditin  
laprast egiten ditin.

Ene eskua hire eskua dun  
xurgatzen dinat  
tolesdurak ukitzen ditinat  
bueltan ene izter-barrenetara  
marrazten dinat

emeki

ene sexua

aurkitzen ditinat ene kizkur bustiak  
orraztu  
mainatu  
tira.

Ene eskua hire eskua dun  
amultsu lotsagabe arrai  
sartzen dun ahalkegabe  
ahoan ematen zidan musu

camina  
muy lento  
hacia arriba  
descubre mi luna  
mi monte  
mi punto.

Mi mano es tu mano  
me frota  
me muerde  
me lame  
la excita que gima  
que llore  
que cante  
se mece en su cuna  
apura su baile  
se mueve  
se para  
detiene mi orgasmo  
reanuda su vuelo  
me lleva girando  
me suelta en el cosmos  
me grita: te amo.

[...]

ibiltzen dun  
oso makal  
gorantz  
aurkitzen din ene ilargia  
ene mendia  
ene puntua.  
Ene eskua hire eskua dun  
igurzten nain  
hozka egiten zidan  
miazkatzen nain  
kitzikatzen ditene auhenek  
ene negarrak  
ene kantuak  
kulunkan haren sehaskan  
amaitzen din haren dantza  
mugituz  
pausatuz  
gelditzen din ene orgasmoa  
hasten din berriz haren hegaldia  
biraka naraman  
askatzen nain kosmosean  
oihuka ziostan: maite haut.

[...]

**A 3000 kilómetros de ti**

**Higandik 3000 kilometrora**

*Para Julia*

*Juliarentzat*

Te quiero desde lejos  
igual que cuando cerca

Maite haut urrundik  
gertu hagoenean bezala

Te quiero por tus cartas  
tu silencio  
la distancia

Maite haut hire eskutitzengatik  
hire isiltasunagatik  
distantziarengatik

Te quiero desde aquí,  
desde esta realidad de tierra calcinada  
de rostros tan ajenos  
de niños sin infancia

Maite haut hemendik  
lur kiskalien  
bisai hain arrotzen  
haurtzarorik gabeko hauren errealitate honetatik

Desde mi soledad de piedra  
de ramas  
de ventanas

Ene bakardade harrizkotik  
adarrezkotik  
leihozkotik

Te quiero desde el verde  
el sueño  
el agua

Maite haut berdetik  
ametsetik  
uretik

Te quiero desde dentro  
desde mi yo tan tuyo  
desde esta ternura acumulada  
desde mi voz que dice tu nombre

Maite haut barrendik  
nondik eta ene ni hain hiretik  
nondik eta pilatutako xamurtasun honetatik  
nondik eta ene ahotsetik, hire izena esan eta

[y vuela

[hegaz doanetik

Te quiero, amor, te quiero

Maite haut, laztana, maite haut

Desde mí  
desde ti  
desde nosotras.

Nigandik  
higandik  
gugandik.

## Melodía inconclusa

*A Julia*

Abarco tu horizonte con mi cuerpo  
en este enésimo reencuentro nuestro  
toda tú me presentes  
y yo,  
despierto

Me sumerjo en tu pelo  
nido lleno de sol  
con mis dedos  
enciendo tu piel  
mientras delinea los surcos  
que la vida ha formado en tu cuello.

Descifro los botones  
que encierran tu espalda  
y aparecen tus peas  
como diminutos planetas

beso cada una  
cada vértebra  
cada músculo  
repleto de fuerza.

Entre tus piernas  
tu otra boca me llama  
con un canto que hechiza  
desde un mar promesa

mi mano lo escucha  
y baja  
lentamente  
por tu vientre

hasta tocar las cuerdas  
de tu lira húmeda.

## Amaitu gabeko melodia

*Juliari*

Hire zerumuga estaltzen dinat ene gorputzaz  
gure enegarren enkontru honetan  
hik, osorik, susmatzen naun  
eta ni,  
itzartzen naun

Hire ilean murgiltzen naun  
habia eguzkiz betean  
ene hatzez  
pizten dinat hire azala  
marrazten ditudan bitartean  
bizitzak lepoan egin ditinan ildoak.

Deszifratzen ditinat botoiak  
hire bizkarra giltzapetzen dutenak  
eta agertzen ditun hire orinak  
planeta ñimiñoak lez

bakoitza musukatzen dinat  
orno bakoitza  
gihar bakoitza  
indarrez betea.

Hire hanka artean  
hire beste ahoa zeukanat deika  
sorgintzen duen kantu batez  
promes-itsaso batetik

entzuten din ene eskuak  
eta jaisten dun  
emeki  
hire sabeletik

jo arte hire  
lira umelaren sokak.

## Pequeño desencuentro\*

*También para Julia*

Es inevitable,  
de vez en cuando  
surgen los malentendidos,  
sobre todo en lo que está  
apenas comenzando.

Pero,  
déjeme decirle  
cuenta usted  
con mi más jubilosa promesa  
que abriré mis sentidos  
como una flor inmensa.

Le propongo juntemos  
nuestras buenas intenciones  
nuestra costumbre de hablarnos desde dentro  
nuestras ansias por esta vida loca.

Mi querencia por usted se encuentra intacta  
todo será cuestión de reatraparnos  
de revivir queridísimos instantes  
y ya verá, mi amor, cómo las cosas  
van a ser mejor que antes.

\*Obvia y humildemente inspirado en mi  
Benedetti querido.

## Desadostasun txikia\*

*Juliarentzat hau ere*

Saihestezina da,  
lantzean  
sortzen dira gaizkiulertuak  
batik bat  
hasi berria den horretan.

Baina,  
utzidazu esaten  
har ezazu  
nire promesik bozkariotsuena  
zentzumenak irekiko ditu  
egundoko lore bat nola.

Ene proposamena, batzea  
gure asmo onak  
gure elkarri barrendik hitz egiteko ohitura  
gure bizi zoro honekiko grina.

Zuganako aiherra bere horretan dago  
kontua izango da elkar berriz harrapatzea  
berriz bizitzea instant maitatuenak  
eta ikusiko duzu, ene laztana, ezen gauzak  
lehen baino hobeak izango direla.

\*Umiltasunez, ene Benedetti maiteak nabari  
inspiratua

## No, no te has ido

*Sí, otro para Julia*

En medio de mis búsquedas a diario  
de mis rabias vertidas a medias  
de mis encuentros con las letras  
y el papel en blanco,  
está constante tu recuerdo  
como un reloj  
como una planta  
como un salmo.

## Ilusa

*El último para Julia*

Créeme, confío.  
  
Me digo que la perpetuidad no existe ya  
ni siquiera en los panteones  
que es muy probable que algún día,  
en efecto,  
despierte sintiendo diferente.  
  
Sin estas ganas embriagantes de pensarte  
sin este deseo tonto  
que el tiempo eche reversa  
sin esta maldita nostalgia de tu ser entero.  
  
Me pregunto:  
¿deveras será cuestión de tiempo?  
  
Me contestó:  
sí, seguro que en un siglo...

## Ez, ez haiz joan

*Bai, Juliarentzako beste bat*

Ene eguneroko bilaketak  
erdizka isuritako amorrak  
enkontruak ene letrekin  
eta paper zuriarekin  
hor zagon konstante hire gomuta  
erloju bat nola  
landare bat nola  
salmo bat nola.

## Ameslari

*Juliarentzako azkena*

Sinets iezadan, konfiantza zeukanat.  
  
Esaten zionat neure buruari betikotasunik ez dela ja  
ezta panteoietan ere  
seguruenik egunen batean,  
hain zuzen,  
desberdin sentituz esnatuko naun.  
  
Hi pentsatzeko gogo hordigarri hauek gabe  
denborak atzera-martxa sartzeko  
gogo inozo hau gabe  
hire izate osoaren nostalgia madarikatu hau gabe.  
  
Ene arteko galdera:  
egiaz al dun denbora kontua?  
  
Erantzuna:  
bai, mende bat barru seguruenik...

### **Eso sí que no**

Yo puedo todo menos eso.

Puedo decaerme un poco  
permitir que la nostalgia se me acerque  
jugar con la idea de suicidarme  
quizás hasta llorar a gritos  
tomarme dos tequilas o  
meterme en la cama a la una de la tarde.

Todo, menos sentarme a  
esperar junto al teléfono.

### **Clases de tejido**

Me tejo un suéter  
con el ovillo enredado  
de tus recuerdos

me lo pongo  
pero el frío  
continúa  
entonces quiero quitármelo  
y me desgarró  
a jirones  
la vida.

### **Ez, hori ez**

Edozer egin dezaket hori salbu.

Tristatu naiteke apur bat  
utz diezaioket nostalgiari inguratzen  
neure burua hiltzearen ideiarekin jolastu  
agian baita orroka negar egin ere  
bi tekila edan edo  
eguerdiko ordu batean ohean sartu.

Edozer, eseri eta  
telefonoaren ondoan itxaron baino.

### **Trikota eskolak**

Jertse bat egin dinat  
hire oroitzapenen  
haril nahasiaz

jantzi dinat  
baina hotza  
hor zagon  
orduak kendu egin nahi dinat  
eta urratzen dinat  
puskaka  
ene bizia.

## Réquiem melancólico

*Para Adriana*

En mis poros te siento  
en las afiladas lunas de mi sexo

te siento en el vientre  
en los propios huesos  
la carne  
el pelo

por cada una de mis puertas  
en cada gota de deseo  
te siento

en mis esquinas te siento  
bajo las uñas  
en el silencio

como parte de mi espalda  
te siento

en el compás de mis pechos  
en mis axilas-cavernas  
en los pliegues de mi cuerpo

en mi cabeza te siento  
en las arrugas del rostro  
por las veredas de adentro  
en mi risa  
en mi llanto  
en mi recuerdo

en todo mi ser te siento  
como si no hubieras muerto.

## Requiem malenkoniatsua

*Adrianarentzat*

Ene poroetan sentitzen haut  
ene sexuaren ilargi zorrotzetan

sentitzen haut ene sabelean  
are, hezurretan  
haragian  
ilean

ene ateetako bakoitzetik  
desira tanta bakoitzean  
sentitzen haut

sentitzen haut ene izkinetan  
azazkalpean  
isiltasunean

ene bizkarraren parte bahintz bezala  
sentitzen haut

ene bularren konpasean  
ene leize-besazpian  
ene gorputzaren tolesduretan

sentitzen haut ene buruan  
aurpegiko zimurretan  
barrengo zidorretan  
ene barrean  
ene negarrean  
ene oroimenean

sentitzen haut ene izate osoan  
hil izan ez bahintz lez.



## Llamado

Tengo una golondrina inquieta entre los muslos  
Danzo desnuda sobre las flores de mis sábanas  
Percibo el más tenue de los signos

Soy un deseo que traspasa el universo  
espuma brava que no alcanza a disolverse  
un manantial acechante en plena jungla  
un aroma violento a sexo fresco

Mi piel quiere vivir por cuenta propia  
revolcarse en tu ser de tierra húmeda  
en la furia de tu mar profundo  
en tus llanos riveras y montañas

Ven, mujer, qué esperas  
bórrame hasta el último rastro de estas ganas.

## Deia

Enara egonezin bat zeukanat ene izterren artean  
Dantzaten naun biluzik ene izaren lore gainean  
Sumatzen dinat seinale ahulena bera ere

Unibertsoa gurutzatzen duen desira bat naun  
disolbatu ezinean dabilen apar harroa  
iturburu bat oihan betean zelatan  
sexu fresko usain bortitz bat

Ene azalak bere kontura nahi du bizi  
hire lur hezecko izatean lorrindu  
hire itsaso sakonaren amorruan  
hire lautada erribera eta mendietan

Hator, emakume, zeren zain hago  
ezaba iezadan gogo hauen azken arrastoa ere.

## CRÓNICA DE UN AMOR FALLIDO

### Fueron tus besos locos

*Te perdono no amarme...  
lo que no te perdono  
es haberme besado  
con tanta alevosía  
Noel Nicola.*

Fuiste tú la que llegaste  
a mí para anunciarme:  
en tus ojos encontré mi tiempo

Tú la que dijiste:  
me vuelven loca tus pechos

Tú la que me besó con toda alevosía  
mientras yo era un campo abierto

Y luego,  
casi enseguida,  
fuiste tú la del miedo  
la de los diques contra el deseo  
la de este forzoso invierno  
la que contuvo mi piel en su puño  
para impedirle el vuelo

Y ahora,  
estoy que reviento de amor por ti  
de ganas  
de este amor que tú creciste en mi pecho  
y en mi sexo  
de este amor que era un regalo  
y tú no supiste quererlo

Fuiste tú quien cometió el pecado  
y mira si juega la vida  
que más que pecar en mi contra

## MAITASUN ZAPUZTU BATEN KRONIKA

### Hire musu zoroak izan zitunan

*Barkatzen dinat ni maite ez izana...  
barkatzen ez dinadana dun  
ni musukatu izana  
horrenbesteko azpikeriaz  
Noel Nicola*

Hi hintzen iritsi zena  
nigana esateko:  
hire begietan aurkitu ninan ene denbora

Hi esan zuena:  
hire bularrek zoratzen naiten

Hi azpikeria osoz musukatu ninduena  
ni soro zabal bat nindunan bitartean

Eta ostean,  
ia jarrai-jarraian,  
hi izan hintzen beldurrarena  
hi desiraren aurkako dikeena  
hi nahitaezko negu honena  
hi ene azala ukabilean gorde zuena  
hegan egin ez zezan

Eta orain,  
lehertzeaz nagon higanako maitasunez  
irrikan  
hik ene bihotzean hazi huen maitasunaz  
eta ene sexuan  
oparia zen maitasun honetaz  
hik maitatzen jakin ez huenaz

Hi hintzen bekatua egin zuena  
eta gauzak zer diren  
nire aurka bekatu egin baino

pecaste contra ti misma.

heure buruaren aurka egin huen bekatu.

### **Te busco**

Sola, en la playa  
busco la forma de tu cuerpo en la arena  
el hueco que dejaron tus codos  
el calor de tus nalgas  
tus pisadas

te busco a ti en el vacío de mis brazos  
me busco yo

busco tu voz, nuestra pasión, los besos  
ese amor prometido que iba a ser inmenso,  
único, histórico

busco...

pero no encuentro nada:  
todo se lo llevó el mar  
con la punta de su lengua  
en aquella madrugada.

### **No todos los amores saben nadar**

Tu amor es un buque  
que naufragó apenas hubo zarpado

El mío alcanzó a volverse ola  
que te buscó entre las olas  
que se asomó en cada faro

### **Bilatzen haut**

Bakarrik, hondartzan,  
bilatzen dinat hanean hire gorputzaren forma  
hire ukondoek utzitako zuloak  
hire ipurmasailen beroa  
hire lorratzak

hi bilatzen haut ene besoetako hutsunean  
neure burua bilatzen dinat

bilatzen dinat hire ahotsa, gure grina, musuak  
promestutako maitasun hura, izan behar  
[zuen egundoko  
bakar, historiko

bilatzen dinat...

baina ez dinat deus aurkitzen:  
guztia eraman zinan itsasoak  
bere mihi-muturraz  
goizalde hartan.

### **Amodio orok ez daki igerian**

Hire amodioa ontzi bat dun  
itsasoratu orduko hondoratu zena

Nirea bilakatu zunan olatu  
olatu artean bilatu hinduena  
itsasargi guztietan agertu zena

que te llamó por tu nombre  
que se perdió en una isla

Ola que no pudo hallarte  
porque tu amor se quedó en la orilla.

hire izenez deitu hinduena  
irla batean galdu zena

Aurkitu ezin izan hinduen olatu  
hire amodioa itsasertzean geratu zelako.

### **Cachondeando con el sol**

A solas con el mar, sobre la arena,  
abro las piernas para que el sol se meta  
para que vuelva colores el prisma de mi sexo  
y retoce en mi otra boca

Una tibieza de hoja me recorre  
la espuma de las olas me besa los pies  
con la pluma de mi lengua  
bebo la sal que se quedó en mi piel

Más abajo,  
un aleteo casi imperceptible me aconseja:  
cierro los ojos para pensar en ti.

### **Acaríciame**

Mi piel está morena,  
Justo como te gusta  
y tú ya no la tendrás cerca  
ni le pasarás rozando  
esos tus dedos blancos  
ni te dibujarás en ella  
ni le dirás soy tuya  
como aquella noche

### **Eguzkiarekin zirrika**

Itsasoarekin bakarka, hondar gainean,  
irekitzen ditinat zangoak eguzkia sar dadin  
kolore anitz bilaka dezan ene sexu-prisma  
eta josta dadin ene beste ahoan

Hostozko epeltasun batek kurritzen nain  
olatuen bitsak musukatzen zizkidan oinak  
ene mihiaren lumaz  
edaten dinat ene azalean pausatu gatza

Beherago,  
hego-soinu ia sumagaitz baten gomendioa:  
begiak ixten ditinat higan pentsatzeko.

### **Fereka nazan**

Ene azala beltzaran zagon,  
Hik laket dunan bezalaxe  
eta hik ez dun jada gertu izango  
eta ez dizkion igurtziz pasako  
hire hatz zuri horiek  
eta ez dun heure burua bertan marraztuko  
eta ez dion esango hirea naun  
gau hartan bezala

de fiebre y luna llena

Mi piel está morena,  
justo como te gusta  
y tú ya no la sentirás erecta  
ni te la comerás con la mirada  
ni me la morderás con ansias  
ni te le incrustarás ardiente  
como aquella tarde  
bajo aquella regadera

Mi piel está morena,  
justo como te gusta  
mi piel está esperándote  
y tú te fuiste sin ella.

### **Había más**

No sólo fueron los verdes  
ni las mañanas frente al mar  
ni la bruja de Boca del Río  
ni aquella mujer morena  
con sus tres hijos

No fue el volver de la playa como soles  
encendidos  
ni la intensidad de tus ojos  
ni las caricias bajo el agua  
ni mis dedos en tu vientre  
y los tuyos en mi nido

No, eso era sólo el principio  
Es lo otro, lo que pudimos haber vivido.

sukar eta ilbetezkoan

Ene azala beltzaran zagon  
hik laket dunan bezalaxe  
eta hik ez dun jada zut sumatuko  
eta ez dun begiradaz jango  
eta ez dion irrikaz hozka egingo  
eta ez dion heure burua sutan txertatuko  
arrats hartan bezala  
dutxa horren pean

Ene azala beltzaran zagon,  
hik laket dunan bezalaxe  
ene azala hire esperoan zagon  
eta hi hura gabe joan hintzen.

### **Bazen beste ezer**

Ez zitunan izan berdeak soilik  
ez goizak itsas aurrean  
ez Boca del Río ko sorgina  
ez emakume beltzaran hura  
hiru haur dituen

Ez zunan izan hondartzatik bueltatzea bi eguzki sutu  
nola  
ez hire begien intentsitatea  
ez urpeko ferekak  
ez nire hatzak hire sabelean  
eta hireak ene habian

Ez, hori hasiera besterik ez zunan  
Bestea dun, bizi izan genezakeen hura.

[...]

[...]

### **De aquello...**

Nuestro amor fue un encuentro azul y una  
gris despedida

De aquello, queda sólo la breve plenitud  
de una mañana  
y un vasto paraje inmóvil en el que no crece  
[nada.

### **Ordutik...**

Gure maitasuna enkontru urdin bat izan zunan eta  
adio gris bat

Hartatik, gelditzen dun soilik goiz baten  
osotasun laburra  
eta paisaia zabal mugiezin bat non ezer ez  
[den hazten.

### **Craso error...\***

Era un asunto de pieles  
y lo confundimos todo

Creímos que era un gran amor  
y era tan sólo un gran deseo

Nos equivocamos las dos:  
era cuestión de sábanas  
no de decirse te quiero

Y, sin embargo, a veces  
qué ganas de llamarte  
y que lo vivamos de nuevo.

### **Akats larria...\***

Larru kontua zunan  
eta guztia nahastu geninan

Maitasun handi bat zela uste geninan  
eta ez zunan desira handi bat besterik

Biak tronpatu gintunan:  
izara kontua zunan  
ez maite haut esatekoa

Eta, hala ere, lantzean  
hori gogoa hiri deitu  
eta berriz bizitzekoa.

\*O no confundir la calentura con el gran amor.

\*Edo ez nahastu beroaldia eta amodio handia.

## NOSTALGIA

### Nostalgia

No puedo decir que no te extraño,  
ni que no te piense.  
Tampoco que me esté muriendo sin ti,  
aunque sí por verte. A veces.  
Sé que tú también piensas en mí  
porque cuando nuestras energías coinciden  
mi corazón lo siente.

A ratos me descubro deseando que cierres ya  
tus otras historias  
que el tiempo se despeñe apresurado,  
que no quede más remedio que encontrarnos.  
Y otra vez, la palabra imposible pierde fuerza,  
lo que debe estar lejos se acerca  
y lo que debe estar cerca se aleja.

Y no pienso que qué jodida vida que nos  
[puso de  
frente a este amor imposible. No. Al contrario.  
Pienso que cuánto más rica soy ahora que te  
[tengo  
aunque no te tenga.  
Que tu breve presencia fue una confirmación de  
que todavía soy capaz de vibrar  
y de empaparme, como a los diecisiete.

Y cuando logro andar derecha por las calles,  
sin el peso de tu recuerdo que dobla un poco  
mis hombros, cuando logro iniciar el proceso  
del desapego, algo pasa que te trae de nuevo,  
de nuevo cerca, de nuevo nueva.  
Alguien me cuenta de ti. Yo te sueño.  
Veo una película de amor.

## NOSTALGIA

### Nostalgia

Ezin dinat esan hire mira ez dudarik,  
ez pentsatzen ez haudarik.  
Ez eta hi gabe hiltzen ari naizenik,  
baina bai hi ikusteko irrikaz. Noizbehinka.  
Bazakinat hik ere nigan pentsatzen dunala  
gure energiek topo egitean  
ene bihotzak sentitzen baitu.

Batzuetan neure burua aurkitzen dinat hik hire  
beste istorioak itxi ditzanan irrikan  
denbora amil dadin arrapaladan,  
ez dadin gera elkarrekin topo egin beste  
[erremediorik.  
Eta beste behin, hitz ezinezkoak indarra galdu din,  
urrun behar duena gerturatzen dun  
gertu behar duena urruntzen.

Eta ez dinat pentsatzen zeinen latza den  
[bizitza jarri gintuelako  
maitasun ezinezko honen aurrean. Ez. Kontrakoa.  
Pentsatzen dinat zenbateraino naizen aberatsa  
[orain hi edukita  
ez haukadan arren.  
Hire presentzia laburra izan zela konfirmazio bat  
zioena oraindik gauza naizela bibratzeko  
eta blaitzeko, hamazazpi nituenean nola.

Eta lortzen dudanean kaleetan xuxen ibiltzea,  
sorbaldak apur bat makurtzen dizkidan hire  
gomutaren zamarik gabe, lortzen dudanean hastera  
arroztearen prozesua, zerbaitek berriz ekartzen hau,  
berriz gertu, berriz berri.  
Norbaitek hitaz kontatzen zidan. Nik amesten haut.  
Amodiozko film bat ikusten dinat.

Saboreo tu nombre, lento.

Otros días pienso que cómo me gustaría  
tomarme un café, un inocente cafecito contigo.  
Pero me digo que claro que no sería inocente.  
Porque lo que nos pasa contiene la fuerza de [los  
océanos, y la inocencia es algo etéreo.

En el fondo de mi algo pregunta: si estos amores  
son divinos, ¿por qué regirlos entonces con  
[leyes  
de este mundo? ¿Qué es una lealtad malentendida  
junto al crecimiento del espíritu?

[¿Quién te dice  
que no fue el propio Dios quien nos envió este  
amor de torbellino? ¿Quién te dice que el  
[pecado  
es precisamente no vivirlo?

Estamos llenas de telarañas ancestrales,  
valores de telenovela, miedos.  
Nosotras que nos creíamos tan distintas  
tan evolucionadas. Nosotras las leales,  
las buenas, las perfectas.

La noche del 15 (día del grito, qué ironía)  
quedó para mí suspendida en un tiempo sin  
[tiempo,  
una realidad aparte. La ciudad se fue a  
[celebrar  
su independencia y nos regaló sus calles  
[vacías,  
su aire quieto, para que tú y yo nos  
[encontráramos,  
después de varios meses de no vernos.

Hire izena dastatzen dinat, emeki.

Beste batzuetan pentsatzen dinat nola nahiko niken  
kafe bat hartu, kafetxo xalo bat hirekin.  
Baina nire artean zionat ez litzatekeela xalo.  
Gertatzen zaigunak baitu ozeanoen  
indarra, eta xalotasuna gauza etereoan dun.

Ene barnean zerbaitek egin din galde: maitasunok  
baditun jainkotiar, zergatik gobernatu orduan  
[mundu honetako  
legez? Zer dun gaizki ulertutako leialtasuna  
espirituaren hazkundearen ondoan?

[Nork esan din  
ez zela Jaungoikoa bera bidali ziguna maitasun  
zurrunbilozko hau? Nork esan din bekatua  
[hain zuzen dela  
hura ez bizitzea?

Antzinako amarauez beteak gauden,  
telenobeletako balioz, beldurrez.  
Gu, ustez horren ezberdin  
eboluzionatu. Gu, leialok,  
zintzook, perfektuok.

15eko gaua (oihuaren egun<sup>6</sup>, hori ironia)  
zintzilik geratu zunan niretzat denborarik  
[gabeko denbora batean,  
errealitate bereizi bat. Hiria joan zunan  
[ospatzera  
haren independentzia eta oparitu zizkigun  
[bere kale hutsak,  
haren aire geldia, hik eta biok topo egiteko,  
elkar ikusi gabeko zenbait hilabete eta gero.

---

<sup>6</sup> Irailaren 15a, Mexikoren Independentzia Egunaren bezpera (Itzultzailearen oharra).



Esa noche rompimos nuestras reglas.  
Nos tomamos de la mano, y nos besamos,  
y te abracé mientras tus dedos rozaban  
[tímidos  
mis pechos. Y nos detuvimos a tiempo.  
¿A tiempo de qué, pregunto?  
¿A tiempo de qué, carajo?

Y la vida sigue. Y los karmas son los karmas,  
y hay que vivirlos. En mi agenda no queda  
un solo rastro de tu nombre.  
Ya no tengo que tensar el alma ni morderme  
[los  
labios para no llamarte.  
Sin embargo, no hay día en que no te hable.  
no hay noche en que no duerma con la pequeña  
esperanza de soñarte.

Este diciembre festejaré a solas nuestro  
[encuentro.  
Tú estarás por supuesto acompañada,  
lo cual no quiere decir que no me pienses,  
lo cual no quiere decir que no me extrañes,  
lo cual no quiere decir que no te estés muriendo  
por amarme.

Gau hartan hautsi genitinan gure arauak.  
Elkarri eskua eman, eta elkar musukatu,  
eta besarkatu hindudan hire hatzek lotsati  
[ene bularrak  
igurtzi bitartean. Eta garaiz gelditu gintunan.  
Zertarako garaiz, ene galdera?  
Zertarako garaiz, arraioa?

Eta bizitzak aurrera. Eta karmak karma ditun,  
eta bizi egin behar ditun. Ene agendan ez zagon ja  
hire izenaren arrasto bat ere.  
Ez dinat jada arima tenkatu behar, ez  
[ezpainak hozkatu  
hiri ez deitzeko.  
Hala ere, ez dun egunik hitz egiten ez dinadanik.  
ez gaurik lokartzen ez naizenik hi amesteko  
esperantza txiki horrekin.

Abendu honetan ospatuko dinat nik bakarrik gure  
enkontrua.  
Hik izango dun inor ondoan noski,  
baina horrek ez din esan nahi pentsatzen ez  
[naunanik,  
baina horrek ez din esan nahi ene mirarik ez  
[dunanik,  
baina horrek ez din esan nahi hiltzen ari ez  
[haizenik  
ni maitatzeko irrikaz.

**TENGO SED DE AMAR  
DISTINTA**

**Tengo sed de amar distinta**

Lo sé. Hay que vaciarse, hay que mudar la  
[piel,  
recorrer para atrás nuestra historia,  
hasta el punto exacto de aquel inicio,  
aquel instante preciso cuando el sol-padre  
penetró violento mi ser de luna tierna  
y lo dejó sangrante, con una herida abierta,  
azorada, confusa, insegura.  
Herida-fuente de donde brotó después la rabia,  
y el grito, y la fuerza.

No se es ya la misma después de algo así,  
[créeme.

El calor que debió ser presencia grata,  
como de nido, de alondra, de playa,  
llegó vestido de angustia, de culpa de carga.

Ahí, justo ahí, fue que se detuvo un tiempo.  
Tan sólo uno. Recurrente. Artero.  
Amante posesivo, celoso, cobrador de su  
[espacio.  
Amante que vuelve y me cerca, me mutila,  
me asedia.  
Cicatriz que se abre sin lograr romperme.  
Disonancia en mi vida de acordes.

Por años, el miedo se plasmó en mis pupilas,  
en mi alma tersa. Sin saberlo, con la niña  
creció la cólera, callada, secreta.  
Aprendí a vivir con el estigma.  
Mi vientre fue una cueva de rabia.

**EZBERDIN MAITATZEKO  
EGARRI NAUN**

**Ezberdin maitatzeko egarri naun**

Bazakinat. Hustu beharra zagon, azalberritu  
[beharra,  
atzerantz egin gure historian,  
hasiera haren puntu zehatzeraino,  
instant jakin hartara non eta aita-eguzkiak  
zulatu baitzuen bortizki ene ilargi leunaren izatea  
eta utzi baitzuen odoletan, zauri ireki batez,  
lotsaturik, nahasturik, zalantzati.  
Iturri-zauri, nondik erne baitzen gero amorrua,  
garrasia, eta indarra.

Pertsona ez dun lehengo bera horren ostean,  
[sinetsiezadan.

Epeltasuna, behar zukeena presentzia atsegin  
nola kabiarena, hegatzabalarena, hondartzarena,  
iritsi zen larritasunez jantzia, erruaren zamaz.

Hor, hortxe, denbora bat gelditu zunan.  
Bat bakarra. Errepikakor. Maltzur.  
Maitale posesibo, jeloskor, haren  
[espazioaren hartzekodun.  
Maitale, bueltan etorri, eta inguratzen nauena,  
[mutilatzen,  
setiatzen.  
Ni haustea lortu gabe irekitzen den orban.  
Disonantzia ene akordezko bizitzan.

Urteetan, beldurra islatu zunan ene ninietan,  
ene arima leunean. Konturatu gabe, haurrarekin bat  
hazi zunan sumina, isil, sekretu.  
Ikasi ninan estigmarekin bizitzen.  
Ene sabela amorru-leize bat zunan.

Mi corazón, pájaros en desbandada.  
Ya mujer, la guerra no pudo postergarse.  
Me volví huracán. Floreció mi ira.  
Entré a la lucha sin escudo alguno.  
Obtuve triunfos. Gané batallas.  
Pero hay guerras más largas que otras, sombras  
más negras, fantasmas más fantasmas.  
Además, el dolor cansa. Es necesaria una tregua.

En eso ocurrió tu llegada, mujer-arcángel,  
mujer-montaña, mujer-agua.  
Veniste abierta de brazos, con tu espada de  
[fuego,  
con tu ser volcánico, con tu fiera ternura,  
tu transparencia.  
Te posaste repentina, rotunda, radiante.  
Tocaste mi sexo.  
Metiste tu dedo en la llaga de mi alma.  
Avivaste mis ganas.  
Tenías que haber sido tú, espejo mío, caro  
[reflejo,  
con tu amor recíproco, con tu locura.  
Tú, irremediable, cercana.  
Tierra prometida anunciada en mis mapas.

De nuestro encuentro a esta parte,  
una tristeza honda me habita, un nudo  
[permanente  
en esa entraña sabedora de saqueos y de  
[pérdidas,  
un alarido que reclama el cambio,  
una voz donde no cabe el engaño,  
un cansancio prematuro que se mezcla con cierta  
fortaleza de guerrera.

Ene bihotza, txoriak arrapaladan ihesi.  
Emakume jada, gudua ezin atzeratu.  
Hurakan bihurtu nindunan. Ene amorrua loratu.  
Borrokan murgildu nindunan ezein ezkuturik gabe.  
Lortu nitinan garaipenak. Irabazi batailak.  
Baina badira beste batzuk baino gudu luzeagoak,  
[itzal  
beltzagoak, mamu mamuagoak.  
Gainera, nekagarri dun oinazea. Premiazkoa dun  
[tregoa bat.

Orduan iritsi hintzen, goiangeru-emakume,  
mendi-emakume, ur-emakume.  
Etorri hintzen besoak zabalik, hire suzko  
[ezpataz,  
hire sumendi-izateaz, hire xamurtasun basaz,  
hire gardentasunaz.  
Pausatu hintzen bat-bateko, irmo, distiratsu.  
Ukitu huen ene sexua.  
Sartu huen hire hatza ene arimaren zaurian.  
Piztu hituen ene gogoak.  
Hik izan behar huen, ene ispilu, isla kario,  
hire aldebiko maitasunaz, hire zoramenaz.  
Hi, konponezin, gertuko.  
Agindutako lur ene mapetan iragarria.

Gure enkontrutik gaurdaino,  
tristura sakon bat bizi dun nigan, behin  
[betiko korapilo bat  
arpilatzeez eta galerez badakien errai horietan,  
garrasi bat aldaketa eske,  
ahots bat engainurik gabea,  
neke goiztiar bat nahasten dena halako  
gerlari-sendotasunaz.

Ya no es posible amar de la misma manera,  
con el corazón amarrado a la orilla,  
fingiendo cordura, en guerra abierta, fría  
[y abierta.  
Es injusto. Patético. Inmoral. Repito, injusto.

Me recorre un espanto profundo de amarte  
equivocadamente, de ser expulsada una vez más  
del paraíso, de lastimar lo que nos es amado.  
Lo propio y lo otro.

Porque hay algo muy fuerte en mí, casi físico,  
que se niega a amar con sus viejos disfraces,  
a lanzarse a un amor que de entrada conoce  
vencido, a soñarte. Contigo, las cosas cambian.

Lo que nos ofrecemos trasciende la piel. No  
[se ve.  
No se toca. Le pertenece al Cosmos.

La imagen de esta pasión me conmueve.  
Debe ser cuidada. Antes de buscarme en  
tu cuerpo debo buscarme en mi alma.  
Sin prisa, porque lo tuyo y lo mío es un  
[encuentro que espera.

Tú ya me estabas destinada. Y yo a ti, lo  
[mismo.  
Esto es incuestionable.

Mi destino es mío. Nace de mí. Se acabó la  
[tregua.

La rabia anda suelta de nuevo,  
como sombra sedienta por mi cuerpo,  
[desbocada,

Ezin daiteken jada berdin maitatu,  
bihotza ur ertzean amarraturik,  
zentzutasun plantak eginez, gerra zabalean, hotz  
[eta zabalean.  
Bidegabea dun. Patetikoa. Immorala. Berriz diot,  
[bidegabea.

Izu sakon batek hartzen nain hi maitatzeko  
oker, beste behin erbesteratua izateko  
paradisutik, maite duguna mintzeko.  
Geurea eta bestea.

Badagoelako nigan zer oso sendo bat, ia fisikoa,  
uko egiten diona bere mozerro zaharraz  
[maitatzeari,  
murgiltzeari hasieratik garaitu gisa ezagun duen  
amodiora, hi amesteari. Hirekin gauzak  
[aldatzen ditun.

Elkarri eskainitakoa, azalaz gaindikoa. Ez  
[dun ikusten.  
Ez dun ukitzen. Kosmosa din jabe.

Pasio horren irudiak hunkitzen nain.  
Zaindu beharra zagon. Neure burua bilatu aitzin  
hire gorputzean, bilatu behar dinat ene ariman.  
Presarik ez, hirea eta nirea delako enkontru  
[bat esperoan.

Ene patua hintzen lehendik ere. Eta ni hirea,  
[gauza bera.  
Ukaezina dun.

Ene patua neure dun. Nigandik sortua. Akabo  
[tregoa.

Amorrua aske dun berriz,  
ene gorputzaren egarriz den itzala nola,  
[aske eta ero,

poderosa, consciente de su fuerza. Para amarte,  
primero hay que adentrarse en lo negro.  
Sumergirse en el grito.  
Arrancarse de cuajo la herida. Morirse.  
Y después, ser. Voy a atreverme,  
porque tengo ansias de darme toda nueva.  
Y si voy a amarte, voy a amarte otra, fresca,  
limpia, libre, contenta, plena.  
Como recién nacida.

boteretsu, haren indarraren jakitun. Hi maitatzeko,  
lehenik barneratu behar dun beltzunean.  
Garrasian murgildu.  
Zauria errotik erauzi. Hil.  
Eta ondoren, izan. Ausartuko naun,  
ene burua berri-berri emateko irrikan bainago.  
Eta maite izango bahaut, maite izango haut beste,  
[fresko,  
garbi, aske, alai, bete.  
Jaio berritan nola.

## 5. ITZULPENAREN IRUZKINA

Itzultzailea, jatorrizko testua edozein motatakoa dela ere, etengabe ari da hautuak egiten eta erabakiak hartzen. Jakitun da hartzen duen erabaki orok eraldatu egingo duela jatorrizko testuaren ezaugarriek xede-testuan duen isla, ezin baitaiteke itzuli eraldatu gabe. Hortaz, itzulpena oso-osorik iruzkindu liteke, xehe-xehe, hautatutako hitz bakoitza aukeratu izanaren zioak, abantailak eta desabantailak azalduz.

Lan honetan, berriz, ez dago xehetasun eta ñabardura txikiena iruzkintzeko abagunerik, itzulitako poema bakoitzak zailtasun ugari baititu; eta, horrenbestez, liburu honen itzulpen-prozesuko erronka handienak eta hautu erabakigarrienak aipatu eta analizatuko dira soilik. Izandako beste erronka eta arazo guztiak alde batera utzita, honako hauek landuko dira: bigarren pertsona poetikoaren genero markatua, zehaztasun semantikoaren galera, bertso-lerroen luze-laburren aldaketa, dialektalismoak zein kultur erreferentziak, errimaren erabilera eta erritmoaren erabilera.

### 5.1 Poesiaren hartzailearen generoa

Argi uzten du Roffielek, lan osoan zehar eta modu esplizituan, emakume direla bai igorlea eta bai hartzailea. Hartzailearen generoa esplizitatu egiten du, esaterako, adjektiboen bidez («*Ibas desnuda*», “Autopista México-Puebla”, ikus 18. or.; «*Nacimos para estar solas*», “Destino mayor”, ikus 21. or.; «*sigue loca*», “Mar”, ikus 36. or.) edo poesien eskaintzen bidez («*El último para Julia*», “Ilusa”, ikus 43. or.). Ezin uka liteke garrantzi handia duela horrek Roffielen lanean, eta, beraz, hartzaileak informazio hori gal dezan saihestu behar da; eta are, indartu egin liteke, balizko galerak orekatzeko.

Horrelako galerak sortzen dira, esaterako, adjektiboen kasuan, euskarak ez baitauka genero gramatikalik. Ondorioz, arestian erabilitako adibideak neutralizatu egiten dira zeharo, *desnuda* eta *desnudo* berdin itzuliko baikenituzke euskaraz, eta baita *solas* eta *solos* edo *loca* eta *loco* ere. Galera hori konpentsatzeko noka erabiltzea erabaki zen, adjektiboek galtzen zuten genero marka hartuko baitzuket aditzek. Argudiatu liteke noka erabiltzeak jatorrizkoa gehiegi eraldatzea dakarrela, baina kontuan hartzen baditugu idazlearen nortasun lesbiana eta feminista eta aurretik aipatutako asmo aldarrikatzailea, nabarmen agertzen zaigu emakumeen presentzia azpimarratzearen garrantzia.

Noka erabiltzeak, baina, bazekartzan beste zenbait arazo ere, erabaki beharra baitzegoen zein poematan erabiliko zen eta zeinetan ez. Alegia, bigarren pertsonari ari zitzaizkion poemez gain, bakarrizketak edo hartzaile zehatzik gabekoak direnean ere noketa erabiliko zen

hautatu behar zen. Naturalena lirudike maitaleari edo lagunei hikaz ari zaienak hikaz egingo diola bere buruari ere. Izan ere, Jabier Alberdik dion bezala: «barne bakarrizketan beste inon eta inoiz baino gehiago erabiltzen bide da hiketa, [...] emakumezkoen [kasuan], ahizpen artean baino dexente gehiago» (Alberdi, 1994). Horrek ere badakar, ordea, arazoren bat; izan ere, lan berean honakoa dio Alberdik: «bakarrizketa den alegiazko elkarrizketan solaskidearen kontzientzia argirik ez baldin badago, hots, emakumea inori bereziki –ezta bere buruari ere– zuzendu gabe ari baldin bada, orduan toketa nagusitzen da bakarrizketan» (Alberdi, 1994). Toketa zeharo baztertuko zela erabaki zen, testu honen emakumezko tasunari indarra kentzen ziola eta.

Aldi berean, ni poetikoaren eta (noka erabiltzea erabaki zenez) hi poetikoaren arteko kontrastea markatzea interesgarri suerta zitekeela erabaki zen, igorleak zuzen-zuzen hitz egiten baitio bigarren pertsonari. Hori dela eta, hi poetikorik agertzen ez den kasuetan eztabada erabiltzeko hautua hartu zen. Horrela, beraz, «*Mi vulva es una flor*» (“Gioconda”, ikus 14. or.) itzultzeko «Ene bulba lore bat da» eman da, “Gioconda” olerkian ez zaiolako inori ari zuzenean; baina «*Yo ya no soy yo/Soy tu mirada/y tú, mi deseo*» (“Suspiro”, ikus 27. or.) honela itzuli da: «Ni ez naun jada ni/Hire begirada naun/eta hi, ene desira», zuzenean ari baitzaio beste norbaiti.

Aipatzekoa da, dena den, mendezko perpausetan adizki alokutiboak ez direla erabiltzen mendezko perpausetan, hiketa zuzena denean salbu, bigarren pertsonako aditzetan, alegia. Ez da aurkitu, baina, noka era estentsiboan erabiltzen duen obra ugaririk erreferentzia gisa erabiltzeko. Horietako bat izan da, esaterako, Iokin Otaegik itzultitako *Hain gutun luzea*, Mariama Bâ idazle afrikarrarena (Bâ, 2015). Erreferentzia urri horiez gain, ez dago Euskaltzaindiaren araurik, bigarren pertsonako aditz horiek mendeko perpausetan hartzen duten itxura arautzen duenik. Sarri agertu da lan honetan horrelakoak erabiltzeko beharra, ordea; kasurako: «uzten didanalako haragia hire desiraz taupaka» (“Arrazoiak”, ikus 35. or.), «behar dunanean beste emakume ahots bat» (“Zerumugari so”, ikus 31. or.), etab. Hortaz, literaturan inor gutxik urratu duen bide bati jarraitu behar izan zaio itzulpen hau egiteko.

Badaude, ordea, aipatutako hitanoaren erabileraren bi salbuespen; izan ere, bi poematan *usted* tratamendua erabiltzen du Roffielek, singularrean, “Pida usted un deseo” (ikus 12. or.) eta “Pequeño desencuentro”, (ikus 42. or.) olerkietan, hain zuzen ere. Kasu horietan, beste poema guztietan *tú* erabiltzen duela kontuan izanik, *zu* tratamendua onetsi da. “¡Huy, qué susto!” poeman *usted* tratamenduaren plurala darabil: «*no lo crean*» (ikus 23. or.). Horrako

kasu horretan, baina, neutralizatu egin da: «ez pentsa» erabili da, pertsonarik zehazten ez duen forma. Horra kasuan kasuko erabakiak hartu beharraren beste adibide bat.

## 5.2 Zehaztasun semantikoaren galera

Agerikoa da sarri ezinezkoa dela bi hizkuntzetako hitz banaren arteko baliokidetasun osoa aurkitzea, eta horrek izugarri zailtzen du itzultzailearen jarduna. Hitzak aukeratzean, beraz, itzultzaileak faktore andana izan behar du kontuan, ez soilik esanahi denotatiboa. Olerki-bilduma hau itzultzean, sarri aurkitu dira euskaraz baliokide zehatz-zehatzik gabeko hitzak; hau da, itzultzaileak aukeran zituen hitzak jatorrizkoaren konnotazio guztiak biltzen ez zituen kasuak. Galera hori itzulpen guztietan gertatu ohi den arren, labur-labur azalduko dira hemen zenbait adibide fenomeno horren erakusle.

Zenbait kasutan kontzeptuen zehaztasuna ezberdina izan ohi da. Esaterako, “Urna” (ikus 24. or.) olerkiaren izenburua “Kutxa” gisa eman da. *Kutxa* hitzak, ordea, ez du *urna* hitzak duen ñabardura bera. Lehenak gehienbat hildakoen errautsak gordetzeko kutxei edo hautestontziei egiten baitie erreferentzia, kutxa, aldiz, hiperonimo bat litzateke, edozer gordetzeko kutxa bati egiten baitio. Poesia honetan esplizituki agertzen ez den arren bi adieretako zeinengatik erabiltzen den hitz hori, bi adierok konnotazio garrantzitsuak dituzte bertan gordetakoaren solemnitarearen inguruan; euskarazkoak galdu egin ditu konnotazio horiek. Antzeko kasu bat aurki daiteke “Romance de mar y luna” poeman; bertan, honakoa dio Roffielek: «*Sobre tu manto de lentejuelas*» (ikus 32. or.). *Lentejuela* hitzarentzat «ezkata (distiratsu); lentejuela (Heg.); pailleta (Ip.)» ematen du Elhuyar hiztegiak (Elhuyar Fundazioa, 2017), esaterako, baina *lentejuela* eta *pailleta* hitzak baztertu egin ziren, bata Iparraldeko hiztunentzat ulergaitza suerta zitekeelako, eta bestea Hegoaldekoentzat. Arrazoi horiek direla medio, *ezkata* hitza erabiltzea erabaki zen. Beste behin zehaztasun semantikoa galtzen da, baina irudia mantentzen; izan ere, ezkatek distira egiten dute, argia islatuz, *lentejuelek* bezala. Ezkata hautatzeko beste arrazoi bat izan zen poemaren izenburua, itsasoaren eta ilargiaren irudiak ondo mantentzen zituela erabaki baitzen, ilargiaren errainuek itsasoaren gainazalean sortarazten duen distira ekartzen baitzuen burura arrainak ur azpian argizatzean egiten dutenak. Zehaztasun galerok konpentsatzeko saiakera egin da itzulpen-jardun osoan zehar, ahalik eta ñabardura gutxien gal daitezten.

## 5.3 Bertso-lerroen luze-laburren aldaketa

Aintzat hartu behar du, gainera, poesia itzultzen ari den itzultzaileak, bertso-lerroek luzera jakin bat dutela, eta horrek eragin bisual handia duela, baita bertso-lerro libreetan ere, eta



bertsoen luze-laburra aldatzeak eragin hori eraldatu egiten duela nahitaez. Hori dela eta, ahal izan den neurrian mantendu da bertso-lerroen gutxi gorabeherako luzera; eta, batez ere, bertso-lerroen luzeren arteko erlazioa. Jatorrizkoaren eragin bisual bera mantentzea izan da helburu nagusia, izan ere, bertso-lerroen distribuzioak garrantzi handia du lan honetan, itzulgaiaren azterketan azaldu den moduan.

### 1. Taula

*Bertso-lerroen luzeren konparaketa: "Razones", 35. or.*

ES	EU
Porque eres mía y no porque me gusta como me besas	Neurea haizelako eta ez gogoko dudalako nola musukatzen naunan
porque tu piel huele a almendro y tu sexo a fruta fresca	hire azalak duelako almendrondo usaina eta hire sexuak fruta freskoarena
porque podrías ser un pércimo pero también una reina	izan haitekeelako fruitu bat baina baita erregina ere

Ikus daiteke bertso-lerroak luzera berekoak ez diren arren, gutxi gorabehera mantendu egiten dela ahapaldi bakoitzeko bertso-lerroen luze-laburren arteko harremana. Dena den, ezin uka daiteke sarri aldatu behar izan direla bertso-lerroen luzerak, hainbat arrazoiengatik.

Esaterako, honako adibide honetan:

### 2. Taula

*Bertso-lerroen luzera-aldaketa: "Historia", 20. or.*

ES	EU
No te toques	Ez ezan uki
No te mires	Ez ezan beha
No te ames	Ez ezan maita heure burua

Horrelako egoeren aurrean beharrezkoa izan da bertsoen-lerroen luzera sakrifikatzea, mezuaren argitasun eta estetikaren mesedetan. Beste zenbait aukera ere aztertu ziren, eta guztiek eraldatzen zuten, gainera, bertso-lerroen luzera. Hona aukeretako batzuk: *ez hadi ukitu/ez hadi begiratu/ez hadi maitatu; ez ezan heure burua ukitu/ez ezan heure burua begiratu/ez ezan heure burua maitatu*. Bi aukera horiek antzeko mantentzen zituzten hiru bertso-lerroen luzerak, baina bazuen bakoitzak bere desabantaila-sorta: lehenak kalko oker kutsua zuen, eta, bigarrenak, neurrigabe luzatzen zuen jatorrizkoaren egitura, eta, ondorioz, irakurketa oztopatzen zuen. Horrenbestez, estetikaren, zuzentasunaren eta jatorrizkoaren

egituren arteko nolabaiteko oreka bilatu zen jatorrizkoaren piramide irauli forma sotil horri buelta eman eta handituz.

Beste batzuetan, ostera, ez zen arazo handirik aurkitu bertso-lerroen luzera mantentzeko. Horren adibide egokia da “Adaggio” (ikus 37. or.) poema.

#### 5.4 Dialektalismoak eta kultur erreferentziak

Itzulgaiaren lexikoa aztertzean aipatu da Mexikoko hizkuntz aldaerari dagozkion hitzak erabiltzen dituela Roffielek, eta baita bertakoei ezagun zaizkien kultur erreferentziak ere. Hemen bilduko dira garrantzitsuenak, eta horien itzulpenerako hartutako erabakiak aztertuko dira.

Dialektalismo horietako bat da “La neta” izenburua, «Murmillos al oído» ataleko poema batena (ikus 26. or.). Lehen begiradan badirudi *neta* hitza *neto*, *neta* adjektiboa dela; eta, beraz, RAEren hiztegiari jarraiki, *la limpia, pura, clara y bien definidaren* baliokide izan daitekeela izenburu hori (Real Academia Española, 2014). Ez zirudien, ordea, poemaren edukiarekin lotura logiko handirik zuenik, honelaxe baitio poemak: «¿Y qué carajos extraño de ti,/si no me dabas nada?». Hori dela eta, sarean zenbait azaleko bilaketa egin eta *la neta* mexikarrek darabilten esamolde bat dela aurkitu zen. Oso lagunartean *egia esan* eta antzeko egituren ordain gisa erabiltzen omen da. Hori ziurtatzeko *Diccionario breve de mexicanismos* hiztegian bilatu zen, eta honako adiera agertzen zen bertan: «(De [la verdad] neta, de neta ‘limpia, pura y clara’.) f. La verdad, lo cierto. (Gómez de Silva, 2001). Hortaz, ordain gisa *egia esan* ematea erabaki zen, lagunartekotasuna galtzen bazen ere.

Tokian tokiko hizkeraren beste adibide bat dugu “Razones” (ikus 35. or.) poeman. Bertan, «*porque podrías ser un pércimo*» dio, eta azken hitz hori da, hain zuzen ere, kontsultatutako hiztegi bakarrean ere agertzen ez dena. Hitzaren esanahia bilatzeko Interneten bilaketa sakon bat egin behar izan da, eta, han-hemenka aurkitu da *pércimo* hitza kaki-fruitu mota bati erreferentzia egiteko. *Pércimo* hitza bere horretan biltzen duen argitaratutako iturri bakarra aurkitu da: María Elena Sarmiento idazleak Lou Andreas-Salomé idazle errusiarraren bizitzaren inguruan egindako biografia nobelatu bat. Honela dio bertan:

«[L]e dio a probar una fruta anaranjada que él no había visto nunca.  
–¿Qué es esto? –preguntó René.  
–Pércimo –respondió Lou. Esa fue la primera de muchas veces que lo sorprendió con frutas y verduras que recibía de Sudamérica»  
(Sarmiento, 2014).

Horrek lagundu zuen hitzaren inguruko zalantzak argitzen. Bestalde, kakiaren zenbait barietateri *persimón* esaten diote, eta badago jatorri-izendapen batean oinarritutako Persimon izeneko kaki marka bat (Consejo Regulador de la Denominación de Origen KAKI RIBERA DEL XÚQUER, 2017). Dena den, *kaki* hitzak ez du euskal irakurlearentzat konnotazio berezirik, eta, bai, ordea, fonetika traketsa; hitz horrek, gainera, kolorea dakarkio ziur aski euskal hiztunari burura, frutaren kolore laranjaekin zerikusirik ez duena. Hori dela eta, neutralizatu eta *fruitu* hitza onetsi da: «*porque podrías ser un pércimo/pero también una reina*» itzultzeko, beraz, «izan haitekeelako fruitu/baina baita erregina ere» eman da.

Bi kasuetan, beraz, neutralizatu egin da dialektalismoa, eta euskarazko xede-testuan ez da antzematen jatorrizkoan bertako termino bat erabiltzen denik.

Lexikoaren beste berezitasun bat da kultur erreferentzia, horiekin nola jokatu zen ikusteko, lau adibide erabiliko dira, eta horietako bakoitzarentzat erabakitakoa besteekin erkatuko da.

Lehen erreferentzia *soldadera* hitzak dakar, “Orígenes” (ikus 15. or.) poeman agertzen den hitzak. Hiztegien arabera, *adelitaren* sinonimo da (Moreno de Alba, Garrido, & Mandujano Servín, 2012); eta, *adelita* hitzaren esanahia honako hau da: «f. Cada una de las mujeres que acompañaban en campaña a los revolucionarios de la División del Norte» (Gómez de Silva, 2001), alegia Mexikoko Iraultzan parte hartu zuten emakumeak. Irakurle euskaldun askok ez du, ziurrenik *soldadera* hitza bere horretan ezagutuko; baina, poesiaren estetika zeharo zapuztuko zukeen *soldadera* erabili beharrean terminoaren azalpen bat emateak; horrenbestez, oin-ohar baten bidez argitzea izan da hartutako erabakia.

Beste kultur erreferentzia bat da *periférico* hitza, “D.F.” (ikus 29. or.) olerkian agertzen dena. Izenburuak berak iradokitzen du Mexikoko Hiriaz ariko dela poema, eta, hain zuzen, hiri horretako errepide bati egiten dio erreferentzia hitz horrek: *Anillo Periféricori* (González, 2017). *Periferiko* hitza errepide horrekin zuzenean erlazionatuko ez duen arren, euskal irakurlea izango da gai, ziurrenik, Mexiko Hiriko garraioarekin erlazioa duen lekuren bat dela ondorioztatzeko. Saihestu beharrekoa da, gainera, irakurlea ezjakintzat jotzea, bere kabuz ondoriozta baititzake zenbait gauza. Hori dela eta, bere horretan utzi da *periférico* hitza, moldaketak moldaketa (*periferiko*).

Antzeko zerbait gertatzen da *Boca del Río* (“Había más”, ikus 50. or.) kultur erreferentziarekin, irakurlea gai da Boca del Río leku bat dela asmatzeko, are gehiago letra

larriz dagoela kontuan hartuta. Zein leku den ez da horren informazio garrantzitsutzat jo, eta, hortaz, inongo azalpenik gabe utzi da.

Azkenengo kultur erreferentzia *día del grito* da: «*La noche del 15 (día del grito, qué ironía)*» (“Nostalgia”, ikus 53. or.). *Oihuaren egun* ordainak ez dakarkio euskal irakurleari mexikarrari dakarkion gauza bera, izan ere, Oihuaren eguna da irailaren 15ari esaten diote, egun horretan (Mexikoko Independentziaren egunaren bezperan) oroitzen baita Mexikoren Independentzia ekarriko zuen prozesua hasi zuen ekintza, Grito de Dolores delakoa: «En nuestro movimiento de independencia, [...], se presentan dos momentos, el primero, que se inicia el 16 de septiembre con el Grito de Dolores» (Serrano Ortega, 2011). Hori ere oin-ohar bidez azaltzea erabaki da.

Beraz, kultur erreferentzia guztiekin ezin daiteke berdin jokatu, guztien ezaugarriak ez direlako berberak, eta, beraz, kasuan-kasuan aztertu zen zein zen irtenbiderik onena.

### 5.5 Errimaren erabilera

Aipatu da dagoeneko Roffielek ez darabilela errima usu, baina bilduma osoan bada errimadun poemarik ere. Errimak sortu dituen erronkak irudikatzeko “Hermana mía” (ikus 36. or.) olerkia aukeratu da. Bertan errima asonanteak daude, era irregularrean banatuta: hermanas-abrazan (2-4 bertso-lerroak), vida-poesía-risa-distintas-mismas (5-6-7-10-11), desconcierto-cuerpo-nuevos-miedo-juego-incesto (12-13-15-16-18-19), bañan-ganas-hermanas (20-21-28). Horrenbeste errima egonda, beharrezko iritzi zitzaion errima nolabait mantentzeari, nahiz eta autoreak darabilen modu berean ez izan. Bi elementuen oreka bilatzea izan zen helburu, mezuaren eta errimaren artean, hain zuzen ere; alegia, mezua mantentzen uzten zuen heinean. Horrenbestez, errima eredua aldatu egin zen, errimatzen zuten bertso-lerro batzuk errimarik gabe utzi behar izan direlako, eta errimaren bokalak aldatu egin ziren. Honakoa izan zen errimen emaitza: *bizia-poesia-irria* (5-6-7), *egonezina-ezberdinak* (8-9), *berriak-txikiak* (15-16), *gozoa-erotikoa-gozatzekoa* (16-17-18), *gaitizten-diren* (19-20). Errima horiek ezartzea ere zaila suertatu zen, euskaraz ezin baita errima azentu tonikoan oinarritu, gaztelaniaz bezala (Euskaltzaindia, 2017); hori dela eta, bokalen arteko kointzidentzia jo da irizpidetzat, musikaltasuna bermatze aldera.

Beste zenbait poemak ere bazuten errima han-hemenka. “¡Huy, qué susto!” (ikus 22. or.) poeman errima mota ezberdinak agertzen dira, eta banan-banan aztertu behar izan ziren euskaraz nolabait mantendu ahal izateko. Poemaren atal batean honakoa agertzen zaigu, kasurako: «*invertidas, divertidas*», errimadun bi hitz alboz albo, hitz joko bat eratzen

duntzenak. Euskaraz errima, hitz jokoa eta mezua beren osotasunean gordetzea ezinezkoa izan zen arren, antzeko irtenbide bat aurkitu zen: «inbertituak, indarberrituak» erabiltzean, hitzen antzekotasuna eta errima mantentzen baitzen, eta baita bigarren hitzaren konnotazio positiboa. Antzeko zerbait gertatzen zen honako adibide honekin: «*La palabra da temores,/ da sudores y estertores*». Errima kontsonantea mantentzea eta esanahia ez galtzea ezinezkotzat jo zenez, errima beste baliabide batekin ordeztzea izan zen mezua eta estetika mantentzeko irtenbidea. Hain zuzen ere, «Izua dakar hitzak,/izerdi eta ezindura» izan zen proposatutako itzulpena, errimaren ordeztasuna darabilena. Poema bereko beste adibide bat da «*Huy, qué asco se proclama/(Y en el fondo: ¡Huy, qué ganas!*», eta horrakoa, errima mantendu egin ahal izan zen: «Ui, hau nazka, aldarrika / (eta egiaz: ui, hau irrika!)».

Egon zen, baina, errima-jokoa errazago mantentzeko abagunerik ere: «*Craso error...o no confundir la calentura con el gran amor*» (“Craso error”, ikus 51. or.), esaterako, honela itzuli zen: «Akats larria... edo ez nahastu beroaldia eta amodio handia». Hemen ere, ezin esan liteke irizpide zurrin bat hartu eta horren arabera joka daitekeenik errima agertzen zaigun guztietan, eta horren erakusgarri da, hain zuzen ere, hurrengo azpiatalean aztertuko den olerkia.

## 5.6 Erritmoaren erabilera

Esan bezala, errimak eragin handia izan dezake poesia batean, musikaltasuna ematen baitio olerkiari, eta irakurlearengan eragina du. Are gehiago ahoz gora irakurtzen badu poesia. Antzeko zerbait gertatzen da erritmoarekin ere. Hautatutako hitzek eta haien ordenak erritmo jakin bat sortzen dute, batzuetan oso musikal suertatzen dena. Hori da, hain justu, bilduma honetako “Cántico” (ikus 16. or.) olerkiarekin gertatzen dena. Autoreak berariaz hautatu ditu hitzak olerki horretan, irakurtzean erritmo oso zehatza izan dezan, eta, beraz, eragin jakin bat izan dezan irakurlearengan. Hain zuzen ere, hitz proparoxitonoak erabiltzen ditu bertso-lerro guztien amaieran, eta horretaz eta metrikaz baliatuta, poema oso musikala sortzen du.

Aipatutako ezaugarri horiek direla eta, poema hori izan da bilduma osotik arazotsuena. Errima ere badu, baina nabaria da olerki horren elementu garrantzitsuena, estetikan eragin handiena duena dela erritmoa, errima bainoago. Esaterako, lehen bi bertso-lerroetako azken hitzek errima dute: *esdrújulas* eta *brújula* hitzek, baina deigarriagoa da bi horiek ez ezik, guztiak direla proparoxitonoak.

Jakina da euskararen intonazio-arauak ez direla gaztelaniarenak bezain zurrinak, eta hitz bakarrak hainbat intonazio izan ditzakeela euskalkiaren arabera, edo hitzaren beraren testuinguruaren arabera. Zaildu egin du horrek, zalantzarik gabe, hitzen aukeraketa.

Gaztelaniaz honakoak dira autoreak darabiltzan hitzak, izenburua barne: *cántico, brújula, mítica, tónica, vísceras, células, glándulas, rítmicas, intrépidas, impúdicas, pérfidas, ingravidas, poéticas, mágicas, lésbicas, lunáticas, Andrómeda, erótica, magnífica, política, MUJÉRICA*. Eta hona xede-testurako hautatutakoak: *kantika, emazteak, xederik, mitorik, ezohikoak, erraiekin, hezurrekin, guruinekin, erritmiko, beldurgabe, haragikoi, azpisuge, etereo, poetiko, magiko, lesbiko, lunatiko, Andromeda, erotiko, berealdiko, poetiko, ANDEREZKO*. Antzeman daiteke, batzuetan itzultzailearen mesedetan jokatu dutela euskararen azentuazio-arau malguk, esaterako, *xederik* hitzari lehen silaban ezarri dakiokelako azentua. Dena den, isilean irakurtzean ilun ezkutuan gera daiteke erritmo markatu hori, ahoz gora irakurtzean, ordea, nabaria da oso. Hori dela eta, behar-beharrezkoa poesia-itzultzailearentzat bere lana ahoz gora irakurtzea, behin eta berriro, era horretan bermatu ahalko baitu, eta ez beste inola, egindako lanak poesiaren zertzelada eta ñabardurak behar bezala mantenduko dituela.

Autoreak lau silabako bertso-lerroak darabiltza gehienbat, eta horretarako baliatzen ditu lau silabako hitzak, eta, gutxiago dituztenean, hitz betegarriak: *intrépidas*, baina *las pérfidas*. Euskaraz ere estrategia bera erabili da: *azpisuge*, baina *bai magiko*.

Metrikari dagokionez, mantendu egin da, bi bertso lerrotan salbu: lehenengoan, 11ko bakarra izanik, eraldatzeari zilegi iritzi zaiolako; eta zortzigarrenean, poemaren ulermenaren mesedetan gehikuntza egin behar izan baita: *balidin badira erritmiko*, zortzi silaba ditu lau beharreen; zortzi silabako beste bi bertso-lerro zeudenez, baina, zilegi iritzi zitzaion.

Horrela, beraz, erritmoa mantentzeko ahalegina egin da, olerki bakoitzak bere ezaugarri nagusia manten dezan saiatu behar baitu itzultzaileak.

## 6. ONDORIOAK

Honako lan honen bidez poesia-itzulpenaren berezitasunen hausnarketa egiteaz gain, gaztelaniatik euskararako itzulpenetan itzultzaileari sor dakizkiokeen arazoak ere aztertu ahal izan dira, Rosamaría Roffielen *Corramos libres ahora* poema-liburuaren itzulpenean sortutako erronkak oinarri hartuz.

Hain zuzen ere, poemak nolakoak diren, halakoak izango dira itzulpenak dakartzan arazoak eta trabak ere; beste era batera esanda, autore eta poema bakoitzaren berezitasunen araberakoak izango dira itzultzaileak topatuko dituen erronkak, eta horregatik ezinezko lana izan daiteke zehaztea poesia itzultzearen zailtasunak zeintzuk diren, oro har.

Roffielen *Corramos libres ahora* bilduma itzultzearen arazo handienak izan dira jatorrizko bertsoan *tú* tratamendua jasotzen duen pertsonaren generoa erabakitzea, zehaztasun semantikoaren galera saihestea, bertso-lerroen luzerak mantentzea, dialektalismo eta kultur erreferentziak itzultzea, errimadun bertso-lerroak itzultzea eta poesien erritmoa mantentzea. Edonola ere, arazo horietako bakoitza ez dagokio poema orori, bai baitzegoen horietako arazorik ez zekarren poesiarik ere. Horietan ere, ordea, sortzen da arazorik, beste edozein itzulgaitan sortu ohi den bezala.

Argi geratu da, bestalde, zaila dela aipatutako arazoen konponbidea bilatzean irizpide zurrin bat ezartzea arazo bakoitzaren konponbidearentzat, eta poesia-itzultzaileak kasuan kasuko erabakiak hartu beharko dituela gehienbat, itzulpen egokia egingo badu. Horren erakusgarri dira errima mantentzeko ala ez mantentzeko erabakiak, nahitaez eraldatu beharra baitzegoen; bertso-lerroen luze-laburrei dagozkienak, beste faktore askorekin batera baloratu ondoren batzuetan sakrifikatu egin behar izan baita; azalpenezko oin-oharrak jartzekoak, etab. Beste arazo batzuei dagokienez, baina, irizpide orokor bat hartu beharko du itzultzaileak bilduma osoaren koherentzia bermatzeko, hitanoaren erabileraren kasuan egin den moduan.

Dena den, itzultzaileak buruan izan beharko du, hartzailea ez ezik, poeta ere; haren azalean jarri eta haren ahotsa birsortu beharko baitu xede-hizkuntzan. Poema bera ere gogoan beharko du momentu oro, ezin baita ahaztu poesiak berak aurpegi anitz dituela, eta, horiek ahal bezain osoen mantentzeko asmotan, horietako zein eta zein neurritan sakrifikatu beharko duen erabaki beharko baitu itzultzaileak, jatorrizkoaren efektu bera xede-irakurlearengan sortu nahi badu.

## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alberdi, J. (1994). Hitanoa non eta nork erabiltzen duen. *Euskera*, 39(2), 983-993.
- Bâ, M. (2015). *Hain gutun luzea*. (I. Otaegi, Itzul.) Donostia: Edo.
- Consejo Regulador de la Denominación de Origen KAKI RIBERA DEL XÚQUER. (2017). *Kakifruit.com*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 10. Iturria: Kakifruit.com: <https://www.kakifruit.com>
- Duncan, C. (2011). Eroticism and Sexual Transgression in *Dos mujeres and Amora*: Shaping the Voice of Lesbian Fiction in Mexico. *Confluencia*, 26(2), 72-84.
- Elhuyar Fundazioa. (2017). *Elhuyar hiztegiak*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 25a. Iturria: Elhuyar hiztegiak: <https://hiztegiak.elhuyar.eus>
- Euskaltzaindia. (2017). *Literatura Terminoen Hiztegia: Errima*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 2a. Iturria: [http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&view=frontpage&layout=lth\\_detail&Itemid=474&search=errima&lang=es](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=errima&lang=es) helbidetik eskuratua
- Franco Aixelà, J. (1996). Culture-specific Items in Translation. R. Álvarez, & C. Vidal in, *Translation, Power, Subversion* (52-78 or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- Gómez de Silva, G. (2001). *Diccionario breve de mexicanismos*. Mexiko Hiria: FCE.
- Gómez Pato, R. (2012). Apuntes para una didáctica de la traducción de poesía. *Education in the Knowledge Society*, 13(1), 236-265. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 19a. Iturria: [http://campus.usal.es/~revistas\\_trabajo/index.php/revistatesi/article/view/8795/9001](http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/revistatesi/article/view/8795/9001)
- González, C. (2017). Volcadura complica la circulación sobre carriles centrales del Periférico. *Excelsior*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 4a. Iturria: <http://www.excelsior.com.mx/comunidad/2017/03/20/1153118>
- LeSVOZ, A.C. (2014a). *Lesvoz.org: Historia*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 20a. Iturria: Lesvoz.org: Historia: <http://www.lesvoz.org/historia-2/historia/>
- LeSVOZ, A.C. (2014b). *Lesvoz.org: La editorial*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 15a. Iturria: Lesvoz.org: La editorial: <http://www.lesvoz.org/editorial/la-editorial/>
- LeSVOZ, A.C. (2014c). *Lesvoz.org: Misión*. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 15a. Iturria: Lesvoz.org: Misión: <http://www.lesvoz.org/historia-2/mision/>
- Loisel, C. (2004). Interview with Rosamaría Roffiel (July, 2006). *Women and Language*, 27(1), 74-78. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 20a. Iturria: <http://resolver.ebscohost.com/openurl?sid=EBSCO:cax&genre=article&issn=87554550&ISBN=&volume=27&issue=1&date=20040301&spage=74&pages=74-78&title=Women%20%20Language&atitle=Interview%20with%20Rosamaria%20Roffiel.&aulast=Loisel%2C%20Clary&id=DOI>



- Markuleta, G. (2013). Oharren batzuk poesiaren ontzaldaketaz. *Senez*, 44, 107-121.  
Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 3a. Iturria:  
<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19930101/zabaleta>
- Martínez, E. M. (1993). Entrevista con Rosamaría Roffiel. *Confluencia*, 8(2), 179-180.  
Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 15a. Iturria:  
<http://search.proquest.com/docview/1307989689?accountid=>
- Moreno de Alba, J. G., Garrido, F., & Mandujano Servín, R. (2012). *Diccionario escolar de la AML*. Mexiko Hiria: Comisión Nacional de Libros de Texto Gratuitos.
- Nord, C. (1991). *Text Analysis in Translation: Theory, Methodology, and Didactic Application of a Model for Translation-Oriented text Analysis*. Amsterdam: Rodopi.
- Nord, C. (1997). *Translating as a Purposeful Activity: Functionalist Approaches Explained*. Manchester: St. Jerome Publishing.
- Real Academia Española. (2014). *Diccionario de la lengua española*. Madrid: Espasa Libros.
- Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española. (2005). *Diccionario panhispánico de dudas*. Madrid: Santillana.
- Roffiel, R. (2008). *Corramos libres ahora*. México D.F.: LeSVOZ.
- Sarmiento, M. (2014). *La más amada: la seductora vida de Lou Andreas-Salomé, la mujer que desafió a su época*. Mexiko Hiria: Penguin Random House.
- Serrano Ortega, J. (2011). Dolores después del Grito. Estrategias militares insurgentes y realistas en el norte de Guanajuato, 1810-1821. *Tzintzun: Revista de Estudios Históricos*, 61, 355-374. Eskuratze-eguna: 2015ko maiatzaren 18a. Iturria:  
<https://ruidera.uclm.es/xmlui/handle/10578/6020>
- Zabaleta, P. (1992). Poesía itzuli. *Senez*, 13. Eskuratze-eguna: 2017ko maiatzaren 10a. Iturria:  
<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/19930101/zabaleta>

## 8. ERANSKINA: AURRETIAZ ITZULITAKO POEMAK

Arestian aipatu moduan, Eranskin honetako poemak aurretik itzuli ziren, Gradu ikasgai baterako. Hori dela eta, ez dira lanaren gorputzean txertatu. Amaieran gehitzeari garrantzitsu iritzi zaio, ordea, lanaren eta itzulpenaren ezaugarriak beren osotasunean ikusteko aukera ematen duelako.

### DE MUJER A MUJER

#### Sobrevivientes

*Para mis amigas  
Y también para las demás*

Yo conozco tu locura porque también es la  
[mía

Somos locas rebeldes  
locas de estar vivas  
locas maravillosas  
estrafalarias, floridas

Ovejas negras  
descarriadas sin remedio  
vergüenza de la familia

piezas de seda fina  
amazonas del asfalto  
guerrilleras de la vida

Locas de mil edades  
llenas de rabia y gritos  
buscadoras de verdades  
locas fuertes  
poderosas  
locas tiernas  
vulnerables

Cada día una batalla  
una norma que rompemos

### EMAKUMEAK EMAKUMEARI

#### Bizirik dirauginok

*Ene lagunentzat  
Eta baita besteentzat ere*

Hire eromena ezagutzen dinat nik enea ere  
[badelako

ero menderakaitzak gaitun  
ero bizirik egoteagatik  
ero miragarriak  
xelebreak, loretsuak

Ardi beltzak  
atarramenturik gabe deslaituak  
famiaren lotsagarri

zeta finezko oihalak  
errepideko amazonak  
bizitzaren gerrillariak

Mila arotako eroak  
amorruez eta oihuz beteak  
egien bilatzaile  
ero indartsuak  
boteretsuak  
ero xamurrak  
zaugarriak

Egun bakoitza bataila bat  
hausten dugun arau bat

un milagro que creamos  
para poder seguir siendo

Locas solas,  
tristes,  
plenas

Mujeres locas, intensas  
locas mujeres ciertas.

sortzen dugun mirari bat  
izaten jarraitu ahal izateko

Ero bakartiak  
goibelak  
beteak

Emakume eroak, bortitzak  
Emakume ero ziurrak

## **MURMULLOS AL OÍDO**

### **Reto**

Hemos cumplido la sentencia  
por osar mirarnos desnudas  
al espejo.

*Corramos libres ahora.*

## **XUXURLAK BELARRIRA**

### **Erronka**

Bete dinagu zigorra  
Elkar biluzik begiratzeagatik  
ispiluan.

*Korri dezagun aske orain*

### **Aquella tarde**

No quise lavarme  
ni peinarme mis cabellos

Me dejaste tan llena de ti  
y ni siquiera llegamos a tocarnos.

### **Arrats hartan**

Ez ninan neure burua garbitu nahi izan  
ez ilea orraztu ere

Hitaz hain ase utzi nindunan  
eta ez geninan elkar ukitu ere egin.

## **10 en conducta**

La tarde se acaba  
y nosotras,  
una vez más,  
como buenas amantes  
se va  
cada una  
a su casa.

## **EN TU ESENCIA Y TU PIEL ME ENCUENTRO, MUJER**

### **La suave danza**

Nos besamos  
por el puro  
absoluto  
placer de besarnos

listones de lenguas  
dientes como peces alados  
festín de salivas  
giros  
valeses  
pájaros

tu boca ranura  
cereza  
grosella  
mi lengua gaviota  
cometa  
sirena  
se encuentran  
se tocan

## **Jarreran bikain**

Arratsaren azkena zatorren  
eta gu,  
beste behin,  
amorante zintzoen antzera  
badoa  
bietako bakoitza  
bere etxera

## **HIRE ESENTZIAN ETA AZALEAN AURKITZEN NAUN, EMAKUME**

### **Dantza leuna**

Elkar musukatu geninan  
musukatzearen plazer  
hutsarengatik  
absolutuarengatik

mihi-listoiak  
arrain hegodunen gisako hortzak  
listu-oturuntza  
birak  
valsak  
txoriak

hire ahoa arrakala  
gerezi  
andere-mahats  
ene mingaina kaio  
kometa  
sirena  
elkar aurkitzen dinat  
elkar ukitzen

se enredan  
marineras de un viaje  
sin ida ni vuelta  
tu boca es el mar  
mi lengua, un barco de vela.

elkar korapilatzen ditzen  
joan-etorririk gabeko  
bidaia baten marinel  
hire ahoa itsasoa dun  
ene mingaina, belaontzi bat.

### **Tus sabores**

### **Hire zaporeak**

*Para Julia*

*Juliarentzat*

Tu sexo me sabe a naranja  
a campo  
a miel

Hire sexuari laranjaren zaporea hartzen zionat  
landarena  
eztiarena

Me sabe a volcán que se alza  
a leyenda  
a raíz que se prende a su ser  
a puño cerrado  
a patria  
a ti

Gora datorren sumendiarena hartzen zionat  
elezaharrarena  
haren izateari heltzen dion sustraiarena  
ukabil itxiarena  
aberriarena  
hirea

Tu sexo me sabe a mujer.

Hire sexuari emakume zaporea hartzen zionat.

### **CRÓNICA DE UN AMOR FALLIDO**

### **MAITASUN ZAPUZTU BATEN KRONIKA**

#### **Alguna que otra vez**

#### **Noiz edo noiz**

Hasta mi noche llegas  
y te recuerdo fiera  
celosa en mi caverna

Nire gaueraino hator  
eta basati oroitzen haut  
nire leizean jeloskor

y te recuerdo sirena  
nadando entre mis pechos

y te recuerdo tierna  
como paloma, tierna

y te recuerdo fuego  
encendida de deseo

y te recuerdo plena,  
antes del miedo.

eta sirena oroitzen haut  
ene bular artean igeri

eta xamur gogoratzen haut  
usoaren antzera, xamur

eta su gogoratzen haut  
desiraz pizturik

eta osorik gogoratzen haut  
beldurraren aurretik.